

## Kultura

Gaur eta bihar, 'Zapoi' antzezlanaren areto barrurako bertsioa eskainiko du Karrika antzerki taldeak, Durangoko San Agustinen. > 11



*“1500ean, Mellaren ideien jarraitzaile izatearren 40 pertsona epaitu zituzten Durangon”*



Ander Berrojalbiz | Musikaria eta ikerlaria > 10

## JAEDek Durangoko eta lurretako 164 familiari lagundu die 2015ean

JAED elkarteak 2015eko balantzea egin du. 2015ean, 164 familiari lagundu zien. 74 familiaren kasuan, pobrezia energetikoari aurre egiteko jaso dute laguntza. Horren guztiaren atzean, boluntarioen lan itzela dago. Eta lan gehiago egiteko prest daudela nabarmendu dute. “Laguntza behar dutenak etor daitezela JAEDera”. > 8



## Kurduen esperantza

Durangaldeko zazpi lagun Kurdistanen egon dira, eta han bizitakoa orrialde hauetara dakarte. Gerra sasoiaren, bere kabuz egituratzen dabilen herri bat ikusi dute, Sirian eta Turkian. > 2-3

# ALKIMAX

Alquilamos soluciones

BERRIZ  
Eitua industriagunea, 71C  
Tel.: 946 824 550

GERNIKA  
Goiko Ibarra, 26  
Tel.: 946 271 310

alkimax@alkimax.net  
www.alkimax.net



HOSTOENTZAKO  
HAIZE-MAKINA



MOTOZERRA



ZULAGAILUA



LOREZAINZARAKO  
TRAKTOREA



GASOLINAZKO  
MOTORDUN AITZURRA

### Otxandio > 6

Libre Otxandioxok elkartasuna adierazi die sei auziperatuei

### Durangaldea > 4

Treneko tarifen kontra protesta bidaia deitu dute Berrizen

### Atxondo > 6

Atxondoko Udalak bentaberri eta ondoko lurak salduko ditu

### Garai > 9

Landare eta lorezaintza azoka antolatuko dute domekan

## Herririk herri

# “Kurduak oso harro esaten dute euren herria herriak berak askatu duela”

Hiru durangar eta bilbotar bat Rojavan egon dira, Siria parteko Kurdistanen

**ERREPORTAJEA** M. Onaindia  
Europa zaharraren sortaldean, mende luzetan zehar, bada herri bat bere udaberriaren esperantzaz bizi dena: Kurdistan. Petrolioaren interesek eragindako gatazken erdian, Turkia, Siria, Iran eta Irak estatuetan zatitutako lurraldean. Arerio gutxi ez, eta Estatu Islamikoa (EI edo Daesh) ere kurduen kontra agertu da. Albistegietan, gerraren erdian ikusi ditugu berriro ere kurduak. Azken asteetan, Durangaldeko hainbat lagun egon dira bisitan, *Newroz* ospakizuna aprobetxatuta. Neguari agur esaten diote kurduak jai horretan; suaren bueltan, herriaren erresistentzia omentzen dute, eta esperantzarako eguzkiaren etorrera ospatu ere bai. Durangaldeko lagunak, albistegietan agertzen ez den Kurdistanen beste aurpegi bat ere bada-karte: estatuetatik aparte, auzo eta komunitatetan egituratzen dabiren herri bat, emakumeak protagonista dituen.

### Rojava askean

Mikel Gandarias, Adrian Zelaia eta Jon Bingen Landabidea durangarrak Siriako partean egon dira, Rojavan, Markel Brouard bilbotarragaz batera. Medikua dira Zelaia, Brouard eta Gandarias, eta hortik sortu zitzaizen bidaiatzeko interesa, azken horrek kontatu duenez: “MIR azterketa amaitu dugu, eta, normalean, bidaiaria egiteko ohi-tura egoten da. Baina, ez genuen gura edonolokoa, munduarekiko ikuspegi bat emango zigun bidaiaria bat baizik”. Kurduen proiektu politikoa eta osasun sistema ezagutu gura zituzten, besteak beste. Hegazkinez Ira-

## ROJAVA

Siriako estatuari planto egin, eta Rojava lurraldeko federazioa aldarrikatu dute kurduak. Auzo, herri eta kantoien arabera antolatzen hasi dira.

kera joan, eta handik Rojavara hurreratu ziren. Euren tropen erasoaldiari eutsi egin diote kurduak, eta bota ere egin dituzte, Kobane hiritik, adibidez. Tiro eta bonben pausa horretan, uneotan Turkian baino lasaiago daudela diote lau lagunak, baina Kobanen “zutik zeuden gauza gutxi” topatu dute, Landabidearen arabera. Suntsitutako etxeen ondoan, eremu berrietan hasi dira eraikinak altxatzen. “Berreraikitzen dabilta, baina denbora beharko da oraindik”, esan du Gandariasek. Brouardek azaldu du Euren erasoaren ondorioz ihes egin behar izan zutenen %70 bueltatu direla, eta harro daudela: “Oso harro esaten dute euren herria herriak berak askatu duela”. Rojava eta Siria iparraldeko federazio askea aldarrikatu berri dute kurduak.

### Bonbak entzuten

Kurduak Euren eta Turkiaren oldarraldiei eusten jarraitzen dute. “Futbol zelai batean jolasten egon ginen ume batzuekin. Bonbardaketak eta tiroketak entzun genituen, baina mugaren bestaldekoak ziren”, esan du Brouardek. Arma hartuta borrokan dabilzan asko emakumeak di-

ra, eta Zelaiak azaldu du zergatia: “Gizonek emakumeengan agindu behar ez duten filosofia batetik hasita, egitura politiko eta sozial guztietan emakumeen egitura paralelo bat dago, armadan barne”. Kurduen elkarte edota erakundeetan, ordezkariak beti dira emakume bat eta gizon bat.

### Estaturik ez

Feminismoa barneratzen egindako lana filosofia oso baten baitan kokatzen da. Gandariasek adierazi duenez, herritarren jabe-kuntza dute oinarri. Behetik gora, auzoak, herriak eta kantoiak antolatzen dabilta, aginteko estatuaz aparte. 2005ean Okhalan lider politikoak teori-zatutako konfederazio demokratioaren proposamena da, estatu bat beharrean, lurralde askeak sortzea helburu duena, kurduentzat eta bertan bizi diren etnia guztientzat. Gandarias: “Euren arabera, komunitateen sistema horregaz Ekialde hurbil osoari proposamena egin diote, gatazka guztiak behin betiko amaitzeko”.

### Osasuna, aske izateko

Ospitale zibilak, militarrek eta Ildari Erdi Gorriaren instalazioak bisitatu dituzte. “Baliabide aldetik nahiko mugatuta daude, batez ere daukaten blokeo-gatik”, azaldu du Brouardek. Hala ere, osasun beharrianak herritarrek osatutako batzordeen bidez asetzen saiatzen direla azaldu du Gandariasek: “Osasunik barik pertsona ezin dela aske izan uste dute”.

Euren esperientzia [www.ongietorrirojava.wordpress.com](http://www.ongietorrirojava.wordpress.com) blogean kontatuko dute.



Ezkerretik hasita, Brouard, Gandarias, Zelaia eta Landabidea.



Kobanen hartutako irudia. Umeak etxe hondakinen ondoan jolasten.



‘Newroz’ ospakizunean hartu zuten parte gazteek.

**anboto**  
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta  
Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa:  
946 232 523

Publizitatea:  
946 217 902  
publi@anboto.org

2016ko apirilaren 15a  
14. urtea - 628. alea

**Zuzendaria:**  
Jone Guenetxea Arrinda.  
**Administrazio burua:**  
Itziar Belar Zubizarreta.  
**Administrazioa:**  
Miren Abasolo Txabarri.  
**Publizitatea:**  
Itxaso Martinez de  
Arenaza Yarza eta Nagore  
Txintxurreta Isasi.  
**Erredakzioa:**  
Aitziber Basauri Gandiaga,  
Itsaso Esteban Urriaga,  
Joseba Derteano Bilbao,  
Markel Onaindia Txabarri,  
Maialen Zuazubiskar  
Gallastegi eta Paul  
Bustindui Revuelta.  
**Maketazioa:**  
Eider Alberdi Bengoa.  
**Zuzentzailea:**  
Mikel Azkarraga Etxegibel.

### Laguntzaileak:



“Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua”



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



# “Genozidioa munduan zehar kontatzea gura dute kurduak”

Durangoko eta Otxandioko lau lagun Turkiako eremuan egon dira

**ERREPORTAJEA** M. Onaindia  
Kontrakoa dirudien arren, Turkiako partera joan diren Durangaldeko lagunak Sirian baino gatazka handiagoa topatu dute. *Newroz* ospakizunera joandako euskal delegazioan parte hartu dute. Gorka Zuazua durangarra, eta Humberto Traperero, Eduardo Eizarzugaza eta Egoitz Uriarte otxandiarrak izan dira.

Bakur deitzen da Turkiaren menpe dagoen Kurdistango lurralde hori. Traperero eta Eizarzugaza iaz ere egon ziren. “Autonomia demokratikoak aldarrikatzen hasi zireneko sasoia zen. Kanean, herritarrak lubakiak egiten ikusi genituen. Orain, Turkiako armadak egindakoa ikusi dugu”, esan du Eizarzugazak. Diyarbakirrenko (Amed, kurdueraz) hegoaldeko auzoa setiatuta ikusi dute. “Hegoalderako pasatzeko *checkpoint* (kontrol-puntu) bat igaro behar zen, eta guk han geneukan hotela”,

## BAKUR

Turkiaren menpe dagoen eremu kurdua da Bakur. Iaz autonomiak aldarrikatzen hasi ziren, eta Turkiak hainbat gune setiatu ditu.

azaldu du Zuazuak. Gainera, frankotiratzailak zeuden teila-tuetan. Euren arabera, eraikin asko suntsituta zeuden, eta hondakinekin batera gorpuak jaso eta Tigris ibaira botatzen zituztela salatu zuten hildako umeen senideek. Traperero: “Hoteletik ikusten genituen kamioiak, eta ulertu genuen senideek esaten zutena egia zela.”

HDP alderdiak lagunduta, batzar erronda egin dute. *Newroz* jaia Diyarbakirren eta Batmanen ospatu zuten, eta Uriar-

tek esan du Batmaneko ekitaldia debekatuta zegoela: “Hiri kanpoaldeko gasolindegia baten inguruan geratu ginen delegazioetakoak. Poliziak segituan hasi ziren kargatzen”. Sei hilez setiatuta egon den Cizre hirira ere joan gura zuten, baina ez zieten sartzen utzi. Hildako ugari egon dela diote. Bestalde, errefuxiatuen kanpamentuak bisitatu dituzte, eta, gerora, eskolak eraikitzen laguntzeko asmoa dute. Antolaketa mailan, feminismoa eta aniztasuna nabarmendu ditu Uriartek.

“Blokeo informatiboa” apurtu gura dutela dio Traperok: “Kurduak ere, gertatzen ari den genozidioa munduan zehar kontatzea gura dute”. Hilaren 23an, Durangoko Sapuetxen kontaktuko dute esperientzia, 17:00etan. Etzi berbaldia egongo da, leku berean, 18:30ean, emakume kurduen inguruan. 22an, 18:30ean, bideo-emanaldia egingo dute.



Durangaldeko lau lagunak, besteak beste, hildakoen amekin.



*Newroz* jaia Diyarbakirren eta Batmanen ospatu zuten.



## Clase C Coupé Berria. Lehen begi-kolpeko emozioa.

Igartzten al duzu? Clase C Coupé berriaren bolante aurrean esertzeko eta esperientzia paregabea bizitzeko bultzada da. Kirol-diseinu berria eta nabarmena, 18"ko aleaziozko hagunak, bizi izango duzunaren hasiera baino ez da. Zuretzat da, hilean 340 €-ren truke, 48 kuotatan (sarrera 10.373,48 €, azken kuota 23.906,21 €\*\*, ITN %6,95, UTB % 8,22)

Batez besteko kontsumoa 4,1-8,9 (l/100 km) eta CO<sub>2</sub>-a isurtzea 106-209 (g/km)

\*Finantzaketa-aldibidea: Clase C 220d Coupé Sportive AMG-rekin J.P. 42.600 € (zergak, garraioa eta Mercedes-Benz-en hoberia barne. Aurre-entregatze gastuak kanpo). Mercedes-Benz Financial Services España, E.F.C., S.A.-ren Alternative programari esker. Bruselas Etorbidea 30-28 108 Madrild. Baliozkoak: 2016/04/30era arte onartutako eskariak, kontratua indarrean eta 2016/06/30era arte matrikulatutako ibilgailuak. Finantzatze beharrezko zenbatekoa 32.226,52 €. Hilean 340 €, 48 kuotatan, azken kuota 23.906,21 €, sarrera 10.373,48 €, ITN %6,95, zabalitze-komisioa 963,57 € (%2,99). UTB %8,22. Guztira ordaindu beharreko zenbatekoa 41.189,78 €. Guztira epeko zenbatekoa 51.563,26 €. Baliozko eskaintza 15.000Km/urtean. Azken kuotarako 3 aukera: ibilgailua aldatu, itzuli (kontratua baldintzak betez gero) edo ibilgailua eskuratu, azken kuota ordaindu ondoren. Argazkiko modeloa ez dagokio eskaintzari. Informazio gehiago [www.mercedes-benz.es-en](http://www.mercedes-benz.es-en).

**Mercedes-Benz**

The best or nothing.

**AGUINAGA**

Bizkaiko Mercedes-Benz kontzesionario ofizial bakarra  
info@aguinaga.es · www.aguinaga.es

Boroa Industrialdea, 2. Nabea 3  
48340 ZORNOTZA  
Tel.: 94 630 17 47

C 220d Sportive AMG 340 €/hilean\*,  
48 kuotatan:

- Kirol-akabera AMG barrukoa eta kanpokoa
- Garmin MAP Pilot nabigatzailea
- PARKTRONIC-en bidez aparkatzeko laguntza
- AMG 18"ko aleaziozko hagunak
- Audio 20 multimedia-sistema CD eta Touchpad-ekin
- Larruzko funtzio anitzeko kirol-bolantea
- Uhalak hurbiltzeko sistema





Joan zen barikuan Zaldibarko eta Berrizko kontzentrazioetan ateratako argazkiak.

## Euskotrenen tarifa berrien kontra protesta bidaia deitu dute

Gaur, Berrizen batu, eta ordaindu barik Durangora joan-etorria egingo dute

### DURANGALDEA M.Z.

Barikurako, apirilak 15, protesta bidaia deitu du Berrizko EH Bilduk. Euskal Trenbide Sareak jarri duen tarifakazio sistema berriari kontra egin eta Berriztarrentzat "garraio publiko duin eta bidezko bat lortzeko asmoz" deitu dute ekitaldia. Igoerarik ez! lelopean, Berrizko tren geltokian batuko dira, 19:30ean.

Durangora joan, bertako tren geltokian elkarretaratzea egin, eta Berrizera itzuliko dira. Hori guztia bidaia txartelik erabili gabe egingo dute, protesta moduan. Horrez gain, EH Bilduko kideek adierazi dute tarifa zuzen bat jartzea eskatuko dietela garraio publikoko arduradunei; eta zonaldeak mantendu behar izanez gero, Berriz ere Duran-

galdeko beste herrieekin batera zonalde bakar batean jartzea ere bai. Horretarako, herritarren eta Berrizko beste talde politikoen laguntza eskatu dute.

### Kontzentrazioak

Barikuan, tarifa berrien kontrako kontzentrazio jendetsuak egin zituzten Berrizko eta Zaldibarko tren geltokietan.

## Errefuxiatuen drama, Platerueneko hitzaldian

Greziar egondako Juan Atxotegik berba egingo du

### DURANGALDEA M.O.

Gerretatik ihesean dabiltzan errefuxiatuen egoera aztertze-ko mahai-ingurua antolatu du Plateruena kulturguneko herri-tarrak eguaztenerako, hilaren 20rako. 19:00etan hasiko da, eta Nagore Uriarte Hamaika Telebistako kazetariak gidatuko du.

Plateruenak urtero burutu ohi du Berbertan hitzaldi zikloa, eta horren baitan garatuko da eguaztenerako mahai-ingurua, *Migratzaile eta errefuxiatuen drama* izenpean. Hiru

testigantza plazaratuko dira. Errefuxiatu batek, Greziar boluntario ibilitako Juan Atxotegi

19:00etan hasiko da, eta Nagore Uriarte Hamaika Telebistako kazetariak gidatuko du

zornotzarrak eta Itsaso Egia CEAR elkartereko kideak berba egingo dute.



Errefuxiatuen egoera aztertuko dute, hilaren 20an, Plateruenean. EFE

## Pirritx eta Porrotx, bertako eta sasoiko jatekoen alde

### DURANGALDEA M.O.

Bertako eta sasoiko produktuak ematearen aldeko kanpainan daude Durangaldeko hainbat

guraso elkarte, eta Pirritx eta Porrotxen babesak jaso dute. Gainera, Berrizko Learreta Markinakoak ere batu dira.



Pirritx, Porrotx eta Marimotots, Elorrioren, zenbait guraso eta umerekin.

## Udako tailerretan izena emateko epea zabalik

### IURRETA A.B.

Udako tailerrak antolatu ditu Iurretako Udalak, uztailearen 5etik 30era bitartean. Izena emateko epea, berriz, apirilaren 22ra arte egongo da zabalik. Ibarretxe kultur etxean aurkeztu behar da eskaria egiteko orria. Herrigunean antolatuko dira tailerrak, adinaren arabera osatutako bost taldetan; 09:30etik 14:30era gauzatuko dira. Iurretarek eta bertan ikasten dutenek izango dute lehentasuna.

## Totorikaguena Benito Ysursaren omenaldian

Boisera joan da Iñaki Totorikaguena alkatea

### IURRETA Jone Guenetxea

Totorikaguena alkatea Boisera (AEB) joan da, Benito Ysursaren ondorengoekin bildu eta herri bien arteko harremanak estutzeko. Ysursak bizitzaren zati handi bat eman zuen seme-alabei, ondorengoei eta Boise ingurukoiei euskal kultura, dantzak eta hizkuntza transmititzen.

Apirilaren 19ra arte, alkateak hainbat bilera izango ditu Ysursa-Basabe familiekin eta

Idahoko euskal ondorengoekin. David Bieter Boiseko alkatearekin ere egongo da. Hainbat bisita eta bilera ere egingo ditu. Besteren artean, Boiseko Basque Center bisitatuko du.

Boiseko euskaldunen topaketa gunean ere Ysursa omenduko dute, eta Oinkari dantza taldearekin batuko da Iurretako alkatea: "Etorkizunean ezagupen eta kulturen arteko elkartruke-rako aukera ona izan daiteke".

### APIRILEKO SARIAK

## Anbotoren lagunak

[www.anboto.org](http://www.anboto.org)  
lagunak@anboto.org  
Tel.: 946 816 558

**SAN AGUSTIN. SARRERAK**  
"Zer duzu Amy?" antzezlanerako 2 sarrera. Maiatzak 5, 20:00tan.

**URBASA ABENTURA. MULTIABENTURA**  
Multiabentura Ibilbidea Familian, 4 pertsonentzako.

**SALTSAN KATERIN. MENUA**  
Bi lagunendako aste bitarteko menua.

**SAN AGUSTIN. SARRERAK**  
Umeentzako "Ensueños" ikuskizunerako 2 sarrera. Maiatzak 15, 18:00tan.

**HITZ LIBURU-DENDA. LIBURUA ETA CDa**  
Pedro Iturria Sarasibaren "Euskarari gorazarrea" liburua eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen "Amalur" CDa.

## ABANTAILAK

- Deskontuak Durangaldeko zein eskualdez kanpoko hainbat saltokitan.
- Deskontuak Anboton argitaratzen diren iragarki labur ordainduetan eta eskeletan.
- Hilero egingo diren zozketetan parte hartzea.
- Durangaldeko egutegia eta turismo-gida opari.



# BAUTISTA

## MUEBLES Y DECORACIÓN



## LOGELEN KANPAINA BEREZIA BIKOTEEN ETA GAZTEEN LOGELAK

Deskontu bereziak:  
logelak, haurrentzako logelak, armairuak, koltxoak eta somierrak

Zure erosketa %100 finantzatzen dugu, eta abuztuan hasiko zara ordaintzen:  
10 kuota, sarrerarik, interesik, komisorik eta gasturik gabe

Proiektua eta aurrekontua kompromisorik gabe  
Finantziazioa dohainik

[www.bautistamuebles.com](http://www.bautistamuebles.com)

☎ 94 672 77 00

info@bautistamuebles.com

Urbite Industriagunea, 4 - 2. pabiloia ABADIÑO  
(Eroski merkataritza-gunearen ondoan)

# Libre Otxandixo dinamikak “elkartasun osoa” erakutsi die sei auziperatuei

Agerraldian sei otxandiarren kontrako prozesu judizialak salatzen hasiera eman zioten



Domekako agerraldian ateratako argazkia.

**OTXANDIO** Joseba Derteano Joan zen domekan, Libre Otxandixo dinamika aurkezteko agerraldia egin zuten, eta sei otxandiarren kontrako prozesu judizialak salatzen hasiera eman zioten.

Egoitz Garmendia, Aitor Uribe, Amair Lopez de la Calle, Egoitz Lopez de la Calle, Asier Duran eta Miren Soloeta dira epaiketaren zain dauden sei otxandiarren kontrako prozesu judizialak salatzen hasiera eman zioten.

Proiektu politiko baten parte izan eta lan soziala egitearren atxilotu, torturatu eta espetxeratuak izan dira”, adierazi zuten Libre Otxandixo dinamikako kideek

agerraldian. Horregatik, “euren egoera gogorra ozen salatu, eta elkartasun osoa erakutsi” zieten, eta, aurrerantzean, prozesu judizialak salatzen hasiera eman zioten. “Egoeraren larritasunak horrela eskatuta, maiatzaren 17an Egoitz Garmendia eta beste zortzi kideren aurka hasiko den epaiketa salatzea izango da lehentasuna”. Herriko eragile, alderdi zein norbanakoei ere norik bere ekarpena egiteko deia egin zieten.

Garmendia 2010ean atxilotu zuen Guardia Zibilak. Urte bi eman zituen kartzelan. Orain, Auzientzia Nazionalean epaituko dute. Fiskalak 9 urteko kartzela zigorra eta 10 urteko gaitasun-gabetzea eskatzen ditu.

## Udalak Bentabarri eta ondoko lurak salduko ditu

**ATXONDO** J.D.

Joan zen asteko udalbatzarrean, EH Bilduk eta EAJk aho batez onartu zuten udalaren jabetzakoak diren Bentabarri baserria eta bere inguruko lurak enkante publikoan salteko erabakia. Atxondotik Elorriorako bidean, ezkerretara, bidearen albo-alboan dago baserria. Guztira, 2.300 metro dituen partzela aterako dute enkantera: hor barruan daude Bentabarri baserria (238 metro karratu dituzten azpiko plantak) eta ondoko eraikina (61 metro karratu). Horrekin batera, bidearen beste aldean dagoen 868 metro karratuko beste partzela bat ere sartzen da aurrekoarekin batera. Hori guztia batera saldu gura dute. Udal teknika-riak 57.795 eurotan tasatu du oinarritzeko prezioa.

## Asteburuko erasoen aurka agertu dira udal talde denak

Bake eta tolerantziarako deia egin dute

**ZORNOTZA** J.Derteano Joan zen asteburuan, BBK-ko sukurtsal biren eta Movistaren instalazio baten aurkako erasoak gertatu dira, Zornotzan. Udal talde denek salatu dituzte ekintza horiek. EAJk, Hiri Ekimenak eta PSE-EEk

adierazpen instituzionala adostu zuten. “Ekintza bandalikoek hautsi egiten dituzte bizikidetzaren abiapuntu diren tolerantzia eta besteen ideenganako begirunea, eta bakean bizi nahi duen gizarteak uneoro babestu beharko lituzke printzipio horiek”, dio adierazpenak. Aldarrikapen guztiak, “bakea eta demokrazia bitarteko” direla egin ditzaten eskatzen dute.

EH Bilduk ere “errefusatu” zituen ekintzak. “Bizikidetzaren tolerantzia eta ideiekiko errespetuan oinarritu behar da”. Horrela, “aldarrikapenak errespetuz eta modu baketsu eta demokratikoan egin daitezkeen” dei egiten dute.



## Sinadura bilketa supermerkatuak ez irekitzeko

**ZORNOTZA** J.D.

Zitza Gune Askeak [www.change.org](http://www.change.org) webgunean hasi du sinadura bilketa Eroskik Tantorren auzoan irekiko duen supermerkatuaren aurka. Zornotzan “multinazional desberdinetako sei supermerkatu daude”, gogoratu dutenez, eta “nahiz eta instituzioetatik denda txikien aldeko kanpainak egin, gero eta pertsiana gehiago itxita ikusten ditugu gure herriko kale askotan”. Gainera, supermerkatua irekitzearen truke Eroskik Tantorren auzoan irekiko duen supermerkatuaren auzo urbanizazioa egitea “xantaia” dela dio: “Argi dago hori udalaren ardura dela, herriko beste auzoetan egiten den moduan, eta ez multinazional baten eskutik”.

## 29 elorriar Saharako kanpamentuetan egon dira

Institutukoak eta Uriarte zinegotzia joan dira

**ELORRIO** M.O.

29 elorriar Saharako errefuxiatuen kanpamentuetan (Aljeria) egon dira. Institutuko kideak eta Aratxu Uriarte udaleko ordezkaria joan dira bidaiari. Babesa erakutsi die: “Saharar herriak munduari erakutsi dion

gauzarik hobereana da esperantza eta duintasuna direla galdu beharreko azken gauzak”.

Uholdeek eragindako kalteak konpontzen lagundu dute, eta eskola materiala zein jolasak banatu dituzte Amgala herriko hiru ikastetxetan.



Bidaiari joandako elorriarrek, kanpamentuetan ateratako talde argazkian.

**hitz** #gomendioak  
liburudenda  
artekalea 14, durango  
946 810 776  
info@hitzliburudenda.com

**HELDUENTZAT LITERATURA OHARRAK**  
Walter Benjamin (2015)

**UME ETA GAZTEENTZAT ESKU JOKOAK**  
Oihana Esquirol Picabea (2011)

**MUSIKA IGUAL Y DIFERENTE. UNA MIRADA DISTINTA**  
Doctor Deseo (2016)

**BODEGUILLA**

TRAÑA-MATIENA  
Tel.: 94 681 43 85

Eraikuntzarako materiala  
**MACOBER**  
Zeramika eta gresa  
Eitua industriagunea, 66 BERRIZ  
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es



**RENAULT**  
Passion for life

Bigarren eskuko ibilgailuek espazio zabala behar zuten, eta eman egin diegu.

# GAURSA OCASIÓN

# ESPAZIO ZABALA

## BIGARREN ESKUKO IBILGAILUAK IURRETAN

Kalitate handia eskaintzen dugulako (ehun puntutan baino gehiagotan errebisatutako autoak); 24 hilabeterainoko bermea ematen dugulako; stock handia eta marka guztietako ibilgailu-aukera zabala dugulako; gure prezioak azken prezioak direlako; finantziazio-baldintza ezin hobekak eskaintzen ditugulako... Eta beste hainbat arrazoi tarteko, bigarren eskuko ibilgailu baten bila bazabiltza, zatoz **IURRETAKO GAURSA ZENTRO HANDIRA.**



Renault recomienda **elf**

**RENAULT  
OCASIÓN**

ZER EZ ZENUKE EMANGO HORRELAKE AUTO BATENGATIK

**GAURSA**

Arriandi, 12. Tel. 94 620 33 00. IURRETA [www.gaursa.com](http://www.gaursa.com)

# “Laguntza behar dutenak, etor daitezela JAEDera”

2015ean, Durangoko eta Iurretako 164 familia lagundu zituen JAED elkarteak



JAEDeko kideak, jatekoaren banaketa koordinatzen duten lokalean, eguaztenean.

**DURANGO** Markel Onaindia JAED elkarteak 2015eko balantzea egin du, eta daturik esanguratsuenen berri eman zion prentsari, eguaztenean. Guztira, Durangoko eta Iurretako 164 familia lagundu dituzte; 74 familiaren kasuan, pobrezia energetikoari aurre egiteko jaso dute laguntza. Horren atzean, elkartasun lan itzela dago, JAEDeko

boluntarioek garatzen dutena. Baina, lan gehiago egiteko prest ere badaude, hala behar bada: “Laguntza behar dutenak, etor daitezela JAEDera”, esan dute.

JAED elkarteak 50 urtetik gora daramatza arazo ekonomikoak dituzten familiei laguntzen. Batez ere, jatekoa ematen egiten dute lan, eta pobrezia energetikoaren kasuan, diru-la-

guntza errazten dute. Pinondo Etxean dute bulegoa, eta bertan jasotzen dituzte herritarrek.

2015ean, 136.000 euro inbertitu zituzten. Diru hori hainbat lekutatik dator: bazkideak, Durangoko eta Iurretako udalen laguntza, Gabonetako zozketa... Gainera, ikastetxe eta elkarte askoren ekarpena ere jasotzen dute.

## Potxin eta Patxin pailazoak, Berrizen

Olakuetan egingo dute emanaldia, 12:30ean

**BERRIZ** M.Zuazubiskar Berrizko Merkatari Elkarteak antolatuta, pailazoak egongo dira Berrizen, apirilaren 14an. Potxin eta Patxin pailazoak beraien ikuskizuna eskainiko dute zapatu honetan.

Herriko 30 merkatarik eta Berrizko Udalak antolatuta, 12:30ean eskainiko du ikuskizuna, Olakueta plazan, musika, gorputz espresio, malabare, keinu eta abar erabiltzen dituen pailazo bikoteak.

Antolatzaileen iritziz, ikuskizun hauek “oso politak” izaten dira, eta giro “ederra” jartzen dute herrian.

### Ikuskizuna

Potxin eta Patxin pailazoen tren bidaia baten amaiera eta hirira heltzen diren unea antzetzuko dute, Berrizko Olakueta plazan. Horrela, artistak bertako hiritarren bizimodura moldatu beharko dira. Ibilbide horretan, bi antzezleek hainbat oztopo eta abentura biziko dituzte.

## Mercadona eta Lidl-en proiektua eten gura dute

**DURANGO** M. O.

Mercadonaren eta Lidl-en Abadiñoako plana geratzeko asmoz, mozioa aurkeztuko du Durangoko EH Bilduk. Bere ustez, Durangon “eragin zuzena” edukiko du proiektuak. Horregatik, erabakiaren parte izan gura dute. Hauxe da mozioaren helburu bat: “Abadiñoako Udalari ezagutaraztea, egin nahi duen aldaketa ezin dela aldebakarreako izan, eta are gutxiago Durangoko Udala kontuan hartu gabe”. Hirigintza batzordea lehenbailehen batzea eskatu dute, eta San Faustoko auzokideek eta Dendak Baik bertan parte hartzea ere bai.

Supermerkatuak San Faustoko auzo ondoan eraikitzea da Abadiñoako Udalaren plana, eta horregatik, auzoan trafiko arazoak sortu daitezkeela uste du koalizioak.

## DAZ elkarteak auzotarren iritzia zabaltzen

**DURANGO** M. O.

DAZ auzo elkarteak (Durangoko Alde Zaharra) iaz burututako inkestan jasotako iritzi batzuk plazaratu ditu. 130 herritarrek parte hartu zuten, eta iritzi horien analisia egin zuten aditu batez. Orain, iritziak osotasunean argitaratzea erabaki dute. Azaldu dutenez, zikinkeriaz eta zarategaz ez daude gustura auzokideak.

Kaleak garbitu arren, inoiz ez daudela garbi kritikatu dute, eta, horren aurrean, sistema indartzea proposatu dute. Errefusa batzeko kontainer gehiago eskura ipintzea eskatu dute, eta komertzioetan paperaren eta beiraren bilketa sustatzea ere bai. DAZeko kideen ustez, “gauza batzuk diru gutxigaz egin daitezke, baina borondatea falta da”. Auzotarrei entzuzterako gonbidatu dute udala.

## San Jurki jaiak ospatuko dituzte Berano Txikin

**MALLABIA** J.G.

San Jurki jaiak ospatuko dituzte, apirilaren 23an eta 24an, Mallabiko Berano Txiki auzoan. Apirilaren 23an, Donien Atxa altxatuko dute, eta ondoren, auzo afarian batuko dira. Apirilaren 24an, 11:00etan, meza emango dute. stean, lapiko apurtzea, dantza erakustaldia, oilar harrapatzea eta erronomia izango dira. Arratsaldean, magia ikuskizuna antolatuko dute.

## Nagusien etxeetan, su detektagailuak

**ZALDIBAR** I.E.

Su detektagailuak ipini ditu udalak 80 urtetik gorakoak bizi diren 47 etxebizitzatan. Bestalde, nagusien bizi-baldintzen eta harreman sarearen berri ere jaso du udalak, ekimen honi lotuta. Besteak beste, honako emaitzak eman ditu gizarte laguntzailearen azterketak: 80 urtetik gorakoak %74k dauka senide edo lagun baten bisita egunero, eta %70 gai da laguntzarik barik ibiltzeko.



Hainbat herritarrek bidali dute, azken asteotan, curriculumak udaletxera.

## Jose Luis Navarro: “Oraindik ez daukagu langileen profilen berri”

Mercadona eta Lidl-eko langileen kontratazioaz azalpenak eman ditu udalak

**ABADIÑO** Itsaso Esteban

Abadiñoako udaleko gobernu taldeak Mercadona eta Lidl-en saltoki berriak zabaltzeko proiektuaren berri eman zuenetik, hainbat herritarrek jo dute udalera enpresa bi horietan sortuko liratekeen lanpostuen inguruko informazioa eskatzeko, edota beraien curriculumak bidaltzeko. Informazio eskari horri erantzunez, *whatsapp* mezua zabaldu zuen, joan zen astean, Abadiñoako Udalak.

“Udala ez da hasi enpresen irekierarekin sortu litezkeen lanpostuetarako eskariak kudeatzen”, argitzen du mezuak, “oraindik ez daukagu behar dituzten langileen profilen berri”.

Mezua zabaldu du udalak bi enpresek langileen hautaketa ez dutela oraindik hasi argitzeko

Jose Luis Navarro alkateak dio, lanpostu berrietarako langile abadiñoarrak kontratatze eskatu diela enpresa bi horiei, baina oraindik ez dela langileen hautaketarako prozesurik abiatu. Alkatearen berbetan, “McDonalds zabaldu zutenean, edo metaleko hainbat enpresaren kasuan ere egin izan dugun bezala, enpresek behar dituzten langileen profilen berri ematen digutenean zabalduko du udalak informazio hori”.



# “Loreak dotore-dotore ipini, eta ea zerbait saltzen dugun!”

Amaia Zabalak lehenengoz parte hartuko du Garaiko landare azokan



Zabalak Kimu denda du Berrizen.

**GARAI** Markel Onaindia Domeka honetan, Landare eta Lorezaintza Azoka egingo dute Garain, eta bertan parte hartuko du, lehenengoz, Amaia Zabala garaitarrak. Berrizko Kimu dendan dauzkan loreak eramango ditu, udalak, Urkiola Landa Garapenak eta Trumoittekin antolatzen duten azokara.

Domekarako prestatzen dabil Zabala. “Pozik nago herriko azokan parte hartzeagaz. Loreak dotore-dotore ipini, eta ea zerbait saltzen dugun!” Bere ekarpena *lorabakiak* eramatea

izango da, etxean, pitxerretan ipintzekoak direnak. “Azoka hasi berria da, baina jende asko egoten da”.

**Madriken ikasia**  
Duela 18 urte hartu zuen lo-

Hasieran, prestatu beharra eduki zuen: “Madrilera joan behar izan nuen ikastaroak hartzera”

radenda. “Zerbitzari lanean nenbilen, eta bizitza familiarra ia ez nuela egiten konturatu nintzen”. Afizioa betidanik eduki du, baina, hasieran, prestatu beharra eduki zuen: “Madrilera joan behar izan nuen ikastaroak hartzera”.

Madrilen atera zuen lehen titulua, eta gero ere ikasten jarraitu du, ezkontzetako lore-sortak prestatzeko, esaterako. Nazioarteko azokak ikustera ere joaten da, Parisera, adibidez.

Domeka goizean, bera izango da saltzaile, herrian bertan.

## Launa upategira irteera egingo dute bihar

**MAÑARIA** M.O.

Hainbat mañariar Guardia-rra (Araba) joango dira bihar, Launa upategia bisitatzera. 09:45ean irtengo dira Mañaritik, eta iluntzera arte ez dira etxera bueltatuko. Launa ardoak dastatu, upategia ezagutu, eta bertan bazkaldu ahal izango dute. Jai batzordekoek azaldu dutenez, trikipoteoa ere egingo dute.

Durangaldeko Unzalu eta Gaztelurruvia familiak ekoizten du Launa ardoa.

## Eguaztenean jaiak antolatzen hasiko dira

**IZURTZA** J.D.

Irailean ospatuko dituzten Izurtzako jaiak prestatzen hasteko lehenengo batzarra datorren astean egingo dute. Eguaztenean, 19:00etan batuko dira, udaletxeko batzar aretoan. Udalbatzarra osatzen duten udal taldeetako zein herriko elkarteetako ordezkariak batuko dira, baina atea edozein herriarrentzat zabalik dutela gogoratu dute udal ordezkariak, eta proposamenak jasotzeko prest daudela.

**SEI HANKAKO MAHAIA**

**FRAN GARATE**  
PP



### Angel laguna

Gaur arratsaldean, eguaztenean, Angel lagunarekin hitz egin dut pare bat bider. Gertatzen diren gauzez hitz egin dugu. Asko ohikotzat hartzen ditugula ohartu gara, eta ez diegula garrantzirik ematen. Hala ere, gure berriktaldiko kontu batzuk oso garrantzitsuak dira, eta udaleko erabaketan durangar denen borondatea ordezkatzeko zinegotziok baloratu egin behar ditugu. Eta ahal bada, horiek konpondu. Ekin diezaiegun, ba! Esaldi honekin parekatuko nuke kontua: “Azken aldian behar baino jende gehiago hiltzen ari da”. Hara! Egia borobila bada ere, ez ei digu ezer berririk esaten.

Berriktaldian, gure herriarrentzat eta herritarrentzat funtsezkoak diren kontuak aipatu ditugu. Konpondu beharreko kontuak asko badira ere, gure jendearen ideiek eta ilusioak bikoiztu egin dute kopuru hori, indarrari, garrantziari eta gogoari dagokienez, behintzat.

Athletic, Tabirako, Durango Rugby Taldea, Kulturala eta beste asko animatzen ditugunean bezala.

Ekin diezaiegun, ba! Durangarrak garelako, eta Angelegaz izan dudan berriktaldian ondorio batera iritsi naizelako: urruti iristeko, bideari ekin behar dugu bidea dagoela egiteko. Ekin diezaiegun, ba!

Durangarrak gara, eta durangarrok beti izan ditugu lorpen eta emaitza onak. Beti. Eta hemendik aurrera, gehiago.

Izan gaitzela orain arteko modukoak, edo hori baino gehiago.

Eta nik idatzitako hau norbaitek nirekin komentatu nahi badu, bere esanetara nago. Bersarkada bat.

*\*Erredakzioan itzulita*

## DURANGALDEA ASTEON

### Udaberri Jaia ospatuko dute, bihar, Otxandion

**OTXANDIO** > Umeentzako puzgarriekin hasiko dute Otxandioko Udaberri Jaia, bihar, 17:00etan, eta gauera arte luzatuko dute ospakizuna. Luhartz taldearen erromerian dantzan jarduteko aukera egongo da, 20:00etan hasita. Larregi taldeak joko du ondoren, eta Luhartzaren erromeriaren bigarren zatiagaz amaituko dute.

### Donostia 2016 Bidea, Durangaldean zehar

**DURANGALDEA** > Donostia 2016 Kultur Hiriburuen filosofia Euskal Herrian zehar zabaltzeko antolatu duten 2016 Bidea Durangaldera iritsiko da, maiatzean. Durango eta Otxandio artekoa izango da ibilbidearen 6. etapa, maiatzaren 12an. Ibilbidearen 7. etapa Otxandio eta Legutio artekoa izango da, maiatzaren 8an.

### Jendaurrean berba egiten ikasteko saioak

**DURANGALDEA** > Jendaurrean berba egiten ikasteko tailerra antolatu du Durangaldeko Enpresen Elkarteak. Elkar-tearen Murueta Torreko egoitzan (2. zenbakian) egingo dituzte saioak, apirilaren 21ean eta 28an, eta maiatzaren 12an eta 19an. Ikastaroan izena emateko: 650 47 02 51 edo [manu@maranon.com](mailto:manu@maranon.com).

## IRITZIA

### Presioaz

Martxoaren 20an, Asier Irizarrek Berrian “Presioa” izenburupean: “...presioa, inon ageri ez dena, gaztelaniaz bizitzeko (...) Bada indarririk, inork aipatu nahi ez duena, euskararekiko atxikimendua barregarri utzi nahi duena, eta etiketatzen duena, jokabideak aldarazteraino”.

19an, katalanaren erabilerarekin lotutako erasoak eraman zituztela Europako Parlamentura. Eta euskaraz egin izanagatik eraso potolo bila, hiru gogoan: Tuterako umearena, ume nagusiagoek joa, goardia zibilaren ukabildakada ausartari eta Arteako arropa dendatik kaleratua, bezeroa atenditu ondoren.

23an, hurbiltasuna lelo duen aseguru agentzia oso urdin batean, Durangon, bezeroekin telefonoz espainolez egiteko eskatu eta, eus-

karaz jarraituta, hurrengo egunean langile hartu berria kaleratu. Bestelako aitzakia zehazgabeekin eta buruek elkarri leporatuz ardua, baina horixe gertaeren hurrenkera eta emaitza.

Aipatutako presio aipatu ezina, ekinez egunero egina, oraindik 2016an, aurreiritzi, idatzi gabeko arau, presio eta zigor artean, euskaraz bizi ez gaitzen.

Horren ardura ez zurea, ezta neurea be, baina biok arduratzekoa bai. Ardura Jaurlaritzarena, baina euskaldunon biziraute baldintza duinak legez bermatu arte, gakoa karteran dugu, mihi puntan, pantailan, ... Zerbitzu eta produktuak euskaraz eskatu, exijitu, euskaldunon baldintzak hobetzeko. Dirua nori eman aukeratzean kontuan hartu edota adierazi, euskarari lekua geuk egin ezean, ez diolako inork emango. Prezioaz gain, har dezagun presioa ere kontuan.

**astekaria@anboto.org**  
astekaria 17:00ak arteko epea

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:**  
Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

**DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO**  
Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1500 karaktere baino gehiago izan (tarateak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoen eta emandako iritzien erantzukizunik.

**Berbaz**

Ander Berrojalbiz | 'Los herejes de Amboto' liburua idatzi du | Durango, 1983

**“1500ean Mellaren ideien jarraitzaile izateagatik 40 lagun epaitu zituzten”**

'Los herejes de Amboto' liburua aurkeztuko du Berrojalbizek, apirilaren 22an, Arte eta Historia Museoa



Berrojalbiz, atzean heretiko izateagatik epaitutakoei jartzen zitzaizen 'sambenito' en kopia duela; familiaren eta oinordekoen lotsarako ere zintzilikatzen ziren elizetan.

**> BERBAZ** Aitziber Basauri Durangon 40 pertsonatik gora epaitu zituen Errege Katoliko Inkisizioak 1500. urtean. XVI. mendeko gertakariok ikertu ditu Ander Berrojalbizek 'Los herejes de Amboto' liburuan. Liburuko dokumentazioagaz osatutako erakusketak dago Durangoko museoa.

**Zerk eraman zaitu 'Los herejes de Amboto' idaztera?**

Beti izan dut historiarekiko eta disidentzia politikoa edo erlijiosoarekiko interesa, eta biak uztartzeko aukera eman dit horrek. Europan heretiko talde asko izan ziren; ez horrenbeste, penintsulan. Horien artean, 'Durangoko Heretikoak' legez ezagututakoa egon zen. Errepresiorik handiena jasan zuen talde heretikoa Frai Alonso de Mella buru zuena izan zen: talde horretako 70 lagunetik gora erre zituzten, XV. mendean.

**Hala ere, 1500. urtean kokatu duzu zure ikerketa.**

Bai. Heretikoei buruz argitaratutako iturri eta ondorioen irakurketa kritikoa egin dut.

Ikertzeko gertaera gehiago zeudela ikusita, beste era batera interpretatu zitezkeenak, solte zeuden harietira hasi nintzen. 1500eko gertakarietara buruz argitaratu gabeko informazioa zegoela ikusi nuen, eta horretan sakondu dut. Liburuxka izan behar zuen, datu gutxi bartzuk nituen-eta. Baina, horiek janzteko informazio bila hasita, uste baino agiri gehiago aurkitu ditut, informazio garrantzitsua ematen dutenak. Horrela osatu dut *Los herejes de Amboto*.

**Zein izan duzu abiapuntua?**

Jakin badakigu, XIX. mendetik, inkisizioa Durangon egon zela 1500. urtean. Orduan ere, Durangon heretikoei epaitu zituztela jaso zuen Menendez Pelayok heretikoei buruzko bere ikerketan. Hori datarik ez zuen eta Anbotoko mendilerroan sorginak erre zituztela zioen beste agiri batekin lotu zuen. Bestalde, Labayruk, Bizkaiko historiari buruz idatzitako liburuan, heretiko izateagatik 1500. urtean epaitutako 24 durangarren izenak ageri diren agiri bat jaso zuen— XVI. en mendekoa,

Markinako etxe batean aurkitutakoa—. Luteranoak zirela dio agiriak, baina, Luterok bere erreforma 1516an egin zuela aintzat hartuta, ezin zitekeela izan zioen Labayruk, erratuta zeudela arrazoituz.

**Hori ez dela horrela frogatu duzu liburuan?**

Agiri horren benetako zentzua eta garrantzia frogatu dut. Hala ere, XVI. mendeko gertakari hauei buruzko bi iturri horiek genituen, eta, azken urteotan, ikerlari gehienek 1500ean Durangon epaitutakoak sorginak izan zirela proposatu dute. Durangoko heretikoei buruzko liburuetan hori jaso izan da, baina aipamen txiki lez. Horretan sakondu gura izan dut.

**Eta idazle bien iturrietan murgildu zara horretarako?**

Hala da. Menendez Pelayok erreferentzia txarto eman zuen, eta baliteke horregatik inork aurkitu ez izana Biblioteca Nacionalean egon den testigantza hori. Floranesen—XVIII. mendeko idazlea— eskuizkribuetan topatutako testigantza horrek

“*Durangora etorri zen inkisizioaren tribunalari buruz ere aurkitu dut informazioa*”

datu esanguratsuak ematen ditu: 1500ean 40 lagun epaitu zituen Durangon inkisizioak. Horietatik 11 hil zituzten—hamar emakume eta gizonezko bat—. Hilda zeuden beste bederatzita pertsona ere epaitu zituzten, eta bizirik zeudenekin erre. Kontua da, heretikoak izanik, ez zutela eskubiderik hilerrian egoteko, eta gorpuak aurkituz gero, lurpetik atera egiten zituzten.

**Bizi zirenekin erretzen ziren?**

Bai, errautsak aireratu egiten zituzten. Agirian ematen den auto-fedearen data 1500eko abuztuaren 18koa da. Seguruenik oholtza bat jarriko zuten Andra Marian, eta prozesioan ekarriko zituzten epaitu guztiak, denak euren 'sambenito' arekin (izena, egotzitako

arrazoia... zuten jarrita). Andra Marian sententziak irakurriko ziren. Elizak ez zituen hiltzen. Kondenatuak elizatik kanporatzen zituen: erlaxatuak bihurtuz. Gero, autoritate zibilak hartu, eta erre egiten zituen.

**Labayruk aipatutako agiritik ere egin duzu tira, ezta?**

Bilboko biblioteka pribatu batean topatu dut agiria: 1500ean Durangon epaitutako 24 durangarren izenak daude: erlaxatuak eta 'adiskidetuak'—isuna jarri zietenak, kartzelaratuak, erbesteratuak...—. Zigorra betetzean, berriro onartzen zituen elizak. Ohartu nintzen, sasoi bateko 'sambenito' en inskripzioekin bat egiten zuela agiritako informazioa emateko erak.

**Hor zegoen gakoa?**

1521ean Lutero heretiko izendatu eta gero, eliza edo gizartea erreformatu gura izan zuten kristau guztiak ziren luterano. Heretiko nagusia zen. Uneren batean, inkisizioaren artxibotatik 1500eko heretikoei buruzko informazioa ere aterako zen, eta horrekin egindako 'sambenito' ak zintzilikatu ziren Andra Mariko elizan.

**Epaituaren, eta familiaren eta oinordekoen lotsarako zintzilikatu egiten ziren 'sambenito' ak elizetan.**

Hala da. Egite hori 1530ean sistematizatu zen arren, badakigu aurretiko epaiketen zerrendekin aurreragoko heretikoaren 'sambenito' ak ere zintzilikatzea eskatu zuela inkisidore nagusiak. Heretiko guztiak zaku berean sartzen zituzten. Beraz, nire ustez, Frai Alonso de Mellaren ideien jarraitzaile izateagatik epaitu zituzten 40 lagun Durangon, 1500ean. Emakume asko ziren Mellaren jarraitzaile. Emakumeen autonomia eta egoera hobea defendatzen zela esan daiteke. Anbotoko heretikoak deitu diet, badirelako zazpi bat iturri, XVI. mendekoak, izen hori aipatzen dutenak; euretako bostek Mellaren jarraitzaile lez izendatzen dituzte.

**Errege Katoliko inkisizioarenak dira epaiketa hauek?**

Bai. 1478an sortu zen, eta 1499an Durangora etorri zen tribunalararen inguruko informazioa ere topatu dut Madrileko Artxibo Historiko Nacionalean: epaile, aguazil, fiskal edo soldatei buruzkoa. Epaileetariko bat durangarra zen. Ez genuen hau guztia ezagutzen.

# EZKONTZAK

Lehior Elorriaga



MANCISIDOR

150

URTEURRENA

1868 | 2016

Andra Mari 9 · 48200 Durango · 946 810 628 · [info@joyeria-mancisidor.com](mailto:info@joyeria-mancisidor.com)



GRAN HOTEL  
DURANGO

***Bai, nahi dut***  
***Ezkontza ikusgarria***  
Gran Hotel Durango

**Areto handi eta argitsuak, argi naturalekoak · Menu gozo-gozoak, neurrira egindakoak · Lorategia kanpoaldean · Aparkalekua, zuzeneko sarbidearekin**



**Gasteiz Bidea, 2 · 48200, Durango - Bizkaia · Tel. 94 621 75 80**

# BAI, NAHI DUT EZKONTZA EGUNA



## PRESTAKETA LANAK

Ezkontzaren ospakizunak hainbat erabaki hartzera eramaten gaitu. Hurrengo orrialdeetan hainbat proposamen izango dituzu.

Donde el silencio se oye



Ezkonberrien desioetara eta beharretara egokitutako ezkontza pertsonalizatuak.

30 urtetik gorako esperientzia dugu mota guztietako ezkontzak antolatzen.

San Juan auzoa, 38 | - Axpe - ATXONDO | 48291 BIZKAIA | Tel.: 946 820 833  
reservas@mendigoikoa.com | [www.mendigoikoa.com](http://www.mendigoikoa.com)

**KATAL TOURS** Bidaiak *Airmet*



**PASIOA ETA PROFESIONALITASUNA ZURE BIDAIA ETAN**

Murueta Torre, 8B, etxabea - Landako etorbidea - DURANGO  
Tel.: 94 646 28 19 - 647 84 96 02  
javier@kataltours.com - [www.kataltours.com](http://www.kataltours.com)

ONDO ZAINDUTAKO AZALEAN ERRAZAGOA DA MAKILLAJEA HOBETO GELDITZEA. NORBERARI ONDO DOAZKION KOLOREAK AUKERATZEKO PROBAK EGITEA EZINBESTEKO DA.

# AZAL DISTIRATSUA



## AURPEGIKO TRATAMENDUAK

Ezkontza egunean azala distiratsu izateko tratamenduak hilabete batzuk lehenago egitea komeni da. Orbanak kentzeko laserrak, garbiketak edo peeling-ak denbora bat behar dute efektua egiteko.



**Ana Camarero**  
Edertasunerako tratamenduak  
eta aholkularitza

*Ezkongaienezako eta  
gonbidatuentzako bonuak  
**%25**erainoko  
deskontua*

R.P.S.: 36/16

*Prest egon zaitez hain berezia  
den egun hau heltzen denerako*

- Aurpegiko tratamendua
- Manikura eta pedikura
- Gorputzeko esfoliazioa (peelinga)
- Bekainen diseinua
- Makillaje proba
- Berria!** Betile-luzapenak

Goienkalea, 16-1. esk. • 48200 Durango  
Tel.: 946 817 380 • Mug.: 639 375 474



facebook.com/anacamadero



## KENAI

*ileapaindegia - peluqueria*

[www.kenaizentrua.com](http://www.kenaizentrua.com)

kenai\_zentroa

Dantzari auzunea, 6 behea 5 - lurreta  
Tel.: 946 570 970 - [kenai@kenaizentrua.com](mailto:kenai@kenaizentrua.com)

Autocares **Mallabia**

**MUGIKORTASUN URRIKO PERTSONENTZAT  
EGOKITUTAKO IBILGAILUA**

**AUTOBUSAK:** 18/22/36/56/60 plaza

Murueta Torre kalea, 2G blokea, etxabea  
48200 DURANGO - Bizkaia  
Tel.: 946 201 976 - Faxe: 946 202 348

[www.autocaresmallabia.com](http://www.autocaresmallabia.com)  
[info@autocaresmallabia.com](mailto:info@autocaresmallabia.com)





LEHIOR ELORRIAGA | Argazkilaria



# ARGAZKI AHAZTEZINAK

EGUN BEREZI HONETAKO ARGAZKIEK  
BIKOTEAREN IZAERA ISLATU BEHAR DUTE

Argazkilari bakoitzak bere estilo propioa izaten du. Egun berezi horretako historia argazki bilduma gogoangarri batean jasotzea izaten da bikoteen eta argazkilariaren helburua.



OLA  
JAUREGI

Kurutziaga kalea, 52 Durango  
Tel.: 94 620 08 64  
info@olajauregi.com  
www.olajauregi.com



# “Hainbeste ahalegin egin eta gero, diseinatu dudana bezeroak gustuko duela ikustea itzela da”

LAURA BILBAO | Moda diseinatzailea



**> DISEINUA** Jone Guenetxea Arkitektura ikasketak utzi eta moda munduan abentura berri bati ekin zion Laura Bilbao diseinatzailea. Moda ikasketak egin eta gero, denda zabaldu du Durangoko Artekale kalean. Bere berbei ilusioa darie.

**Arropa diseinatu eta denda zabaltzeko proiektua zelan sortu da?**

Moda ikastea erabaki nuenean, zeremonia-jantziak sortzeko joera nuela konturatu nintzen. Dendetan saltzen ziren arropak ez zitzaizkidan bat ere gustatzen. Nire amak ezkontza bat zuen bakoitzean, gustuko arropa topatzea oso zaila izaten zen. Ematen du mozarrotuta joan behar duzula. Ezkontza batera joateko erosten duzunak ezkontzarako bakarrik izan behar duela dirudi. Horrela, gelan egiten nituen lanak ideia horretara bideratu nituen: ondo jantzita joateko, baina gero, beste momentu batzuetan jantziko duzun arropa izan dadila.

**Zerk bultzatu zintuen arkitektura utzi eta modaren munduan lehenengo pausoak ematera?**

Oso gustuko dut arkitektura, baina arkitekto izatea ez. Ingeniaritza karga handia du, eta hori ez dut gogoko. Niri benetan gustatzen zaidana diseinua da. Arkitektura uztea erabaki nuenean, kaos momentu bat izan nuen, ez nekielako zer egin. Lanbide Heziketako modaren inguruko modulu bat egitera bideratu ninduten Barakaldon, eta bide horri ekin nion.

**Negozio bat zabaltzea ez da erraza izango.**

Egia esan, gogorra izan da. Enpresaria izatea gogorra dela esaten dizuten arren, sartu arte ez dakizu zenbateraino. Oztopo piloa jartzen dizute. Gustuko nuen lokala ikusi nuen, eta proiektua martxan jartzea erabaki nuen. Negozioa bera alde batera utzita, alde burokratiko

da zailena. Negozioa bera, aurretik ezagutzen nuen, arropa saltzailea izan bainaiz urte askoan.

**Eta negozioa zabaltzearen alde positiboa, zein izan da?**

Idea ilusio handiarekin hartu dute. Uste dut Durangon gustuko dutela, eta hori oso betegarria da. Bezeroarekin duzun hartu-emanean konturatzeari, hainbeste ahalegin eta gero, diseinatu dudana gustuko dutela ikustea itzela da.

**Getxoztarra izanda, zergatik erabaki duzu denda Durangon zabaltzea?**

Getxokoa naiz, baina nire bikotekidea durangarra da. Uztailan hona etorri ginen bizitzera. Leku atsegina da bizitzeko, eta proiektuak hemen funtzionatu zezakeela iritzi nion.

**Dendan salgai duzun arropa guztia zuk diseinatutakoa da?**

Ez, estatuan ekoiztutako markak ere ekartzen ditut. Gura dudana da ondo egindako kalitatezko arropa saltzea. Jendeak dituen beharrak ikusten ditut eta kolezioetan sortzen diren hutsuneak betetzen saiatzen naiz.

**Denboraldi osoan ekartzen duzu arropa?**

Bi hilerik behin Madrilera bidaiatu, eta arropa aukeratzen dut. Beraz, denboraldi guztian ekartzen dut arropa berria.

**Nola diseinatzen duzu?**

Dendan diseinatzen dut. Patrioiak egiten ditut, eta hornitzaile katalan bati telak eskatzen dizkiot. Nik neuk josten dut hemen, eta gauzarik konplexuenak jostun bati eramaten dizkiot.

**Ezkontzako soinekorik diseinatu duzu?**

Nire lagunik onenaren ahizpari ezkontzako soinekoa diseinatu nion. Esperientzia oso polita izan zen. Urduri nengoen, erantzukizun handia zelako, baina, azkenean, oso ondo irten zen.

LAURA BILBAO

ARTEKALE, 5 DURANGO  
94.405.40.15

Hemen,  
eztei  
bidaiak,  
maitasunez  
eginak

% **17** arteko  
deskontua

**EROSKI** / bidaiak

Ametsetan? Egizu, lehen!

Kontratu baliabizak. Ez da  
merkatuaren, PISA mugilak.  
EX-616, 2016-4 edizioa





EZKONTZARAKO GUSTURA SENTITUKO ZAREN SOINEKO  
EDO JANTZI HORI TOPATZEKO HONA HEMEN GIDA AZKAR BAT

# JANTZIRIK BEREZIENA

## IZAN ZU ZEU

Minimaltasunetik hasita berezitasunez betetako jantzietara, aukera zabala dago ezkontideen esku. Helburua zu zeu izatea da.

Gizonek, orokorrean, kolore gutxi sartzen dute, detaileren baten ez bada. Emakumeen jantzietan aukera zabalagoa da. Soineko laburragoak edo lepoa bistan dutenak aukeratu daitezke, besteak beste. Arroparen arabera, barruko lentzeria ere aukeratu beharra dago.



**Anboto** TABERNA JATETXEA

Goienkale kalea, 14  
Durango  
Tel.: 946 811 020




- EGUNEKO MENUAK - MENU BEREZIAK - KARTA -  
- ERA GUZTIETAKO PINTXOAK - RAZIOAK -  
Aurrekontuak kontsultatu konpromisorik gabe!

**Goco Tour** AUTOBUSAK

ESKOLA-GARRAIOA,  
EZKONTZAK, OSPAKIZUNAK,  
LANGILEEN GARRAIOA  
LANTEGIETARA, KONGRESUAK.  
9/18/22/30/34/55/67/72  
PLAZATAKO AUTOBUSAK



Arregui auzoa - Condor industrialdea - C Eraikina - AMOREBIETA  
Tel.: 946 308 250 - [gocotour@gocotour.com](mailto:gocotour@gocotour.com)  
[www.gocotour.com](http://www.gocotour.com)

# ESKUAK BETETA

Ezkontza egunean, gutxienez bi gauza eramango dituzu eskuetan, eraztuna eta loreak.



Eraztunen artean aukera zabala dago.  
Urrezkoa, zilarrezkoa, harribitxia ...



## goikomaia



*Zure ezkontza edo ospakizuna inguru paregabe batean, Anbotoren magalean*

*Catering zerbitzua egiaztatutako enprekin  
Bestelako zerbitzu batzuk ere eskaintzen ditugu  
Askotariko menuak eta prezioak  
100 pertsonarentzako lekua  
**Egun zoriontsu bat izan dezazuela!***

*Santiago auzoa, 15  
48291 Atxondo  
Tel.: 609 871 997  
info@goikomaia.com  
www.goikomaia.com*



# DENEN GOZA- GARRI

Dastatzeko menuan erabakitzen du bikote batek bere ezkontzan zein janari eskaini. Menuaz gainera, luntxean eskainiko den janaria ere erabaki beharra dago. Janari tradizionala ala ukitu asiarren bat? Aukera guztiak zabalik daude.

Kalitatea bermatuko duen jatetxe edo kateringak aukeratzeak berebiziko garrantzia du. Batez ere ezkontza jendetsua bada, kopuru horretako bazkari-afariak ematera ohituta dauden ostalariak konfiantza handiagoa ematen dute.



*Ospatu ezazu zure ezkontza modu berezi batean*



San Juan auzoa, 20  
Atxondo, Bizkaia  
Tel.: 946 582 060

[www.akebasorestaurante.com](http://www.akebasorestaurante.com)

**Jatetxea egunero dago zabalik,  
karta eta menuekin**

Ezkontzak, lehen jaunartzeak, bataioak, urtebetetze festak,  
enpresa batzarrak eta era guztietako ekitaldiak.

RESTAURANTE  
**akebaso**  
JATETXEA



Jaunartze  
menuak



# OSAGARRIRIK IKUSGARRIENA

LOREZ OSATUTAKO KAPELUEK EZKONGAIAREN  
JANTZIARI UKITU NATURALA EMATEN DIOTE



## GONBIDATUAK

Gonbidatuek soinekoagaz bat datorren kapela osatzeko hainbat aukera dituzte. Aukerarik onena diseinatzaile bati jantzia eraman eta neurrira egitea da.

## LOREEN JAIA

Orrazkeragaz batera, ilean zein osagarri eraman erabaki beharra dago. Posible da, lehenengo, osagarria aukeratzea. Alderantziz ere egin daiteke. Edozein kasutan, moda-modan dagoen joera loreez osatutako kapeluagaz osagarria egitea da.



enpresa-bilera ospakizunak urtebetetze jaunartze bataio

DURANGON ORDUKAKO TXOKO ALOKAIURUA

688 864 975  
info@zuretxokoa.com

**ZURE txokoa**

www.zuretxokoa.com

Komunikatzen 23 orduko, 5. eta 48.000 Durango - BIZKAIA

**SUSHI GALLERY**

Catering & Showcooking

Tel.: 946 525 986

Komentukale kalea 16, Durango

www.sushigallery-durango.com



# ODOR GOGOANGARRIAK

EZTEI-BIDAIA AUKERA ONA IZAN DAITEKE BIDAIA LUZE BAT EGITEKO. HONA HEMEN KONTUAN HARTU DITZAKEZUN HIRU PROPOSAMEN

## PARADISUAREN BILA Isla Mauricio

Ozeano Indikoan, Madagaskarren ekialdean kokatutako uharte zoragarri hau atsedean hartzeko leku paregabea da. Bere jatorri bolkanikoak koralezko arrezife ugari sortu ditu. Bidaia honek paisaia natural ikusgarriak eta hondartza gogoangarriak batzen ditu.



## MUNDUAREN BESTE ALDEAN Sydney

Australiara, munduaren beste aldera joatea aukera erakargarria izan daiteke. Sydney hirian, leku interesgarri ugari aurkitu ditzakezu. Operaren eraikin originala, Ayers Rock desertua eta Cairns baso tropikala dira, esate baterako, bisitatu daitezkeen leku erakargarrietako batzuk.

## THAILANDIAKO HARRIBITXIA Phuket

Phuket Andamaneko perla lez ezaguna da mundu guztian. Thaiandiako irlarik handiena eta bisitatuena da. Bidaia honek hondartza zoragarrietan gozatzeko aukera eskaintzen du. Era berean, landaretzaz betetako irla ezagutu daiteke.



## NEURRIRA EGINDAKO EZTEI-BIDAIAK



Txinurrisolo, 6 behea  
48220 Matiena (Abadiño)  
Tel.: 944 657 577  
Mug.: 639 346 506  
[www.bagoaz.com](http://www.bagoaz.com)

**EL NIDO  
FILIPINAS**

**ARROZALES  
DE BANAUE**



# AbOIZ

[www.aboiz.es](http://www.aboiz.es)  
Arroitabeiti baserria,  
San Migel auzoa, 2 GARAI  
946 228 240 · [info@aboiz.es](mailto:info@aboiz.es)

*Esklusibotasuna eta dotorezia  
Oiz mendiaren magalean.*

*Bizitza osoan oroituko duzu.*

*Ingurune natural zainduak  
sentsazioz beteko zaitu.*



## Areto barrura egokitu du Karrikak urrian estreinatuz 'Zapoi' kale antzezlan

Gaur, 20:00etan, eta bihar, 22:00etan, Durangoko San Agustin aretoan eskainiko dituzte emanaldiak



Durangoko jaietan estreinatuz Karrikak, iazko urrian, 'Zapoi' kale antzezlan. Txelu Angoitia

**> ANTZERKIA** Itsaso Esteban Urrian Durangoko jaietan estreinatuz *Zapoi* kale antzez-

lana areto barruan eskaintzeko moldatu du Karrika antzerki taldeak, eta gaur eta bihar es-

kainiko du emaitza, San Agustin kulturegunean. Jose Martin Urrutia *Txotxe* zuzendariak

azaldu duenez, areto barruan antzezteko, lana "fintzen" ibili dira Karrikako kideak, urte ha-

sieratik hona. Arte Eszenikoen arloko profesionalak gonbidatu dituzte lana baloratzera, zuzendariak adierazi duenez, eta iritzi horiek aintzat hartuta, hainbat moldaketa egin dituzte.

Urrian estreinatuz zuten kale antzezlanarena da asteburu honetan estreinatuko duten lanaren muina, baina "dramaturgiari indar eta epika gehiago eman" diote. Munduaren eta kulturaren ikuskera merkantilistagaz bat ez datorren antzerki konpainia bat da protagonista. Krisi ekonomikoaren aitzakian, egoitza daukan antzokitik bota gura dute taldea, baina erresistentzia agertuko dute kideek.

Antzerkiari eta kulturaren egoerari buruzko obra da, eta *Medea* klasikoaren testu zati batzuk ere baliatu dituzte gidioan.

Kalerako bertsioan bezala, eszenan hamabi aktore egongo dira San Agustingo emanaldian ere, baina pertsonaiak ere moldatu dituzte azken hilabeteotan.

Durangoko estreinaldiaren ostean, maiatzean, Debako Antzerki Astean eskainiko dute *Zapoi*, eta aurrerantzean ere ahalik eta oholtza gehienetan eskaintzea da Karrikaren asmoa.

## Bihar, Ibilaldiaren aldeko musikak eta dantzak hartuko dute Durango

Euskal kanta ezagunen doinuak girotuko dituzte herriko kale eta plazak



Santa Ana plazan Ibilaldiko koreografia dantzatzuz borobilduko dute goiza.

**> DANTZA** I.E. Maiatzaren 29an, Bizkaiko ikastolen aldeko jai handia hartuko du Durangok. Datorren hileko hitzordu horren aurretik, bihar, herrian musika eta dantza arloan diharduten taldeek beteko dute Durango, 11:00etatik aurrera. Ibilaldiaren alde, herri-guneko kale eta plazak euskal kanta ezagunez beteko dituzte

ekimenean parte hartuko duten musikari eta dantzariak.

Durangoko Orfeoiak, Doinu Zahar eta Bogoroditsie abesbatzek, Bartolome Ertzilla musika eskolako soka, saxofoi eta flauta taldeek, Durangoko Musika Bandak, EirBand musika taldeak eta L'Atelier dantza taldeak parte hartuko dute Ibilaldiaren aldeko emanaldian.

Ibilaldia antolatzen dabilzan Kurutzia eta Ibaizabal ikastoletako ume, gazte, guraso eta irakasleekin, eta aipaturiko musika eta dantza taldeetako kideekin batera, Ibilaldiaren alde kantatu eta dantzatzera gonbidatu dituzte herritarak.

Euskal kantagintzako abesti ezagunak eskainiko dituzte aipaturiko taldeek, herriko bost gunetan, eta Durangoko Musika Bandaren doinuak lagunduta egingo dute ibilaldiko gune batetik besterainoko bidea.

Orfeoiak eta Doinuzahar eta Bogoroditsie abesbatzek eskainiko dute lehenengo emanaldia, 11:00etan, Plateruen plazan. Musika eskolako soka taldea arituko da, Ezkurdin; Eirband taldea, Andra Marian; Musika Eskolako flauta eta saxo taldeak, Txiki Otaegin; eta L'Atelier dantza taldea, Santa Ana plazan. Ibilaldiko koreografia dantzatzuz emango dute jai amaitutzat, Santa Anan. Herritar guztiak gonbidatu dituzte dantza saio horretan ere parte hartzera.



Sei urtetik aurrerako umeentzako antzezlanaren da Gorakadarena.

## 'Moby Dick', Max sariketaren finalean

Umeentzako antzerkiaren sarirako hautagaia da

**> ANTZERKIA** I.E. Arte Eszenikoen Max sariketaren XIX. edizioko finalista izateko hautatu dute Abadiño Gorakada antzerki taldearen *Moby Dick* lana. Umeentzako edo publiko familiarrarentzako antzezlanik onenaren saria eskuratzeko aukera du, beraz, Alex Díaz zuzendari abadiñarraren taldeak. La Maquiné taldearen *El pájaro prodigioso* eta Ananda Dansa taldearen *Pinocchio* obrak ere izendatu dituzte sail horretan. Apirila-

ren 25ean, Madril burutuko duten ekitaldian emango dute jakitera hiruretatik zein den 2016ko umeentzako antzerkirik onenaren Max sariduna.

Sei urtetik aurrerako ikusleei zuzenduriko obra da *Moby Dick*, Herman Melville idazle estatubatuarren XIX. mendean idatzirikoa literaturako klasiko oinarri duena.

Azpeitiko Antzerki Topaketaren azken edizioan, ikusleen saria jaso zuen iaz estreinatuz *Moby Dick* obrak.

**LITERATURA** Itsaso Esteban Durangaldean jaio zein bertan bizi diren idazleen literatura hartu dute ardatz Hitzez eta Ahotsez ekimenaren hirugarren edizioan. Durangaldeko sortzaileek idatziriko olerkiak zein prosa lanak irakurri eta berba hartu dituzte, urte hasieratik, Durangon, eta solasaldiak ere egin dituzte idazleekin.

Durangaldeko herri guztietako 15 eta 82 urte arteko literaturzaleak elkartuko dira Durangon

Datorren barikuan emango dute aurtengo edizioa amaitutzat. Literatur eta euskaltzale talde batek antolatutako ekimen honen aurreko bi edizioetan bezala, parte hartu gura duten guztiek euren ahotsa ipiniko diete eskualdeko idazleei.

Lehenengo eta gaur egungo idazleen obra irakurriko dute; Felipe Arrese Beitia, Julene Azpeitia, Lourdes Unzueta, Ebaristo Bustintza *Kirikiño*, Leire Bilbao, Joseba Sarrionandia, Xabier Amuriza, Mila Salterain, Errose Buztintza, Unai Iturriaga, *Bitaño*, Luis Berrizbeitia, Andoni Urzelai, J.E. Capeau,



Aurreko bi edizioetan bezala, 18:00etan hasiko da ekitaldia, eta sei ordu iraungo du.

## 230 partaidek eman dute izena Hitzez eta Ahotsez irakurraldirako

Sei orduko irakurraldi herritarra egingo dute, apirilaren 22an, Plateruenean

Josu Unzueta, Manu Ertzi-lla, Paddy Rekalde, Arrate Mar-daraz, Iñaki Irasizabal, Gaizka Zabarte eta Peru Magdalena, kasurako. Idazle horietariko batzuek ere parte hartuko dute, gainera, barikuko hitzorduan.

Antolatzaileek esan dutenez, Durangaldeko herri guztietako 230 lagunek eman dute, dagoe-neko, apirilaren 22ko ekitaldian parte hartzeko izena: 15 eta 82 urte arteko literaturzaleak el-kartuko dira, Plateruenean. Bi

minutu izango du parte-har-tzaile bakoitzak bere testua es-kaintzeko; 18:00etan hasiko da ekitaldia, eta sei ordu iraungo du. Aurreko bi urteetan bezala, musikak ere bere lekua izango du, Plateruenean hitzorduan.

## Peru Vidalek irabazi du lehenengo saioa

Berrizen hasi da Bizkaiko Bertsolari Txapelketa



Aitor Bizkarra abadiñarrak bigarren egin zuen.

### > BERTSOLARITZA I.E.

Berrizko Kultur Etxea lepo bete zuten, joan zen domekan, Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren lehenengo saioa entzuteran joan ziren bertsozaleak. Peru Vidalek (Plentzia, 1988) irabazi zuen saioa (178,25 puntu batuta), eta saio horretan parte hartu zuten Durangaldeko bi bertsolariak ere lan txukuna burutu zuten: Aitor Bizkarra abadiñarra izan zen Berrizko saioko bigarren sailkatua (176,75 puntugaz), eta Beñat Romero zornotzarra hirugarrena (163 puntugaz).

Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren Udabarriko Faseko hurrengo saioa, bigarrena, Bermeoko Kafe Antzokian izango da, apirilaren 17an, 18:00etan. Durangaldeko bertsolaririk ez

da arituko saio horretan. Aitor Arrutia, Ander Elortegi, Daniel de Miguel, Imanol Arrutia, Jone Larrinaga eta Julen Ibarguen-goitia izango dira kantatuko duten bertsolariak.

Lan txukuna burutu zuten Berrizko saioan kantatu zuten Durangaldeko bertsolari biek

Aitor Bizkarra abadiñarra bigarren sailkatu zen, eta Beñat Romero zornotzarra izan zen hirugarrena

### GEURE DURANGALDEA

**JON ANDER URKIAGA EGIDAZU**

Irakaslea



### Ez badigute ematen arrazoa guri

Izerdiaren danba danba usaina zikintasunaren arrasto danba danba danba golpe hipnotikoa atsedendiko ogitar-tekoaren zapore gustugabea danba.

Eta historiak lapurtutako duintasuna. Esklabo izatearen harrotasuna. Ups! Langile esan nahi nuen, barkatu. Txixia ahora eman zaie, haur inuzenteari nola. Baina zarratu dituzte lantegiak, kaleratu beharginak, trufatu zaizkigu... To! No! Odolkiak ordainetan!

Xabierrek aspaldi abestu zuen herri honen ahotik: *Langile baten semea naiz ni, / aita bezela langile, / eguneroko ahaleginetan / soldata baten egile; / esku hutsik jaio eta / esku hutsikan nabile / punta-koetan inor etzaigu / gertatu ongile.*

Anjek, ostera, 1977an erretratatu zigun 2016. urte hau kantu baten bidez: *Hamar etxe / hiru kotxe / zazpi, sei / ehun zaldi / eta Suitzako bankuetan, abilki gorderik, / dolarrak, dolarrak, dolarrak meta-ka... / Hori baizik ez da, hori bakarrik / gure nagusiaren, nagusi gaixoaren / miseria...*

Nahiko nuke lore bat, buru hostotsu koloredunez jantzia. Kirten zuzen eta arantzatsuekin. Sasi guztien artetik oihu lazgarririk egin beharrik ez duena, aldamiotik behera petalo bat erortzen zaion bakoitzean. Eta ez dezala odolaren usainik izan, 20:00etako biolentziaren erresumenean. Eta ez gara gerrarako prestatuko, baina bakeak ez du billete erreagarrien izenik izango.

“Gure industriaren defentsan”, apirilaren 23an, mailu hotsez bete dadila Bilbo.

Danba.

**Zapoi**  
Karrika Antzerki Taldea  
Apirilaren 15ean, 22:00etan  
Apirilaren 16ean, 20:00etan

**Txanogorritxo**  
Glu Glu Produksioak  
Apirilaren 17an, 12:00 / 18:00

San Agustin KULTUR GUINEA  
Sanagustinalde, 12 - Tel.: 946 030 021  
sanagustin@durango-udala.net

**Durangoko Kafe Antzokia** [www.plateruena.eus](http://www.plateruena.eus)  
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

**JAT ETX EA**  
EGUNEKO MENUA  
IGANDEETAN MENU BEREZIAK

**APIRILAK 16**  
22:30ean  
**IZAKI GARDENAK + LARRY BIRD**  
KONTZERTUA

**APIRILAK 20**  
19:00ean  
**MIGRATZAILE ETA ERREFUXIATUEN DRAMA**  
BERBERTAN

**APIRILAK 22**  
18:00ean  
**HITZETZ ETZ AHOTSEZ**  
IRAKURKETA



# Gaur Urkiolako santutegiaren parean amaituko da Emakumeen Birako etapa

Otxandiotik sartuta alderik leunenetik igoko dira; amaiera 18:10ean aurreikusita dago



Ane Santesteban errenteriarra lurretako atariko erlojupekoan. Maialen Zuazubiskar

## > TXIRRINDULARITZA J.D.

Emakumeen Bira Durangaldera itzuliko da gaur. Nafarroan, Etxarri Aranatzan hasiko den etapa, Urkiolako santutegiaren parean amaituko da, 18:10 inguruan, Birako gida-liburuaren arabera.

Txirrindulariak Otxandiotik etorriko dira. Beraz, alderik leunenetik igoko dute Urkiola. Azken metroak ikusgarriak izango dira, bidegurutzetik Santutegiaren kokatutako helmugaraino doan aldapa gogorragaz. 109 kilometroko ibilbidean Urkiola-

koa izango da mendate bakarra. Gainerakoan, Heredia eta Zubizabalako koskak kenduta, etapa lau izango da.

Gaurkoaren ostean, etapa bi geratuko dira Emakumeen Bira amaitzeko. Bihar, Bizkaiko kostaldetik ibiliko dira. Berriatuan

hasi (15:30ean) eta amaituko da (18:30ean) etapa. Lekeitio, Ondarroa eta Markina ingurutik ibiliko dira, eta hirugarren mailako Mellerudi mendatea birritan igoko dute.

Domekan, Emakumeen Birari agur jendetsua ematea itxaroten dute antolatzaileek Portugaldeko Ballonti merkataritza-gunearen parean amaituko den etapagaz.

## Legebiltzarraren erabakia

Bestalde, asteon Emakumeen Biraren etorkizunerako garrantzitsua izan daitekeen erabakia hartu du Eusko Legebiltzarrak. EH Bilduk proposatu, ondoren EAJ eta PSErekin batera adostu, eta Legebiltzarrak aho batez onartu du proposamena. EITBko zuzendaritzari Emakumeen Biragaz "hitzarmena egin dezala" eskatu diote. Hitzarmen horren bidez, "EITBk Emakumeen Birari Women World Tour-eko partaide izateko UCIk ezarritako telebista-estaldura ziurtatuko dio, horretarako behar diren bitartekoak bere gain hartuz".

# Guarnier estatubatuarrak irabazle, klasikoan

Longok eta Johansonek osatu zuten podiuma



Longo San Juaneko aldapan tiraka, Guarnier gurpilean duela. M.Zuazubiskar

## > TXIRRINDULARITZA J.D.

Martitzenean lehiatutako Durango-Durango Emakumeen Saria klasikoa Megan Guarnier estatubatuarrak irabazi zuen. Elisa Longo italiarra sailkatu zen bigarren. Biak ihes eginda heldu ziren. Emma Johansson suediarrek osatu zuen itzal handiko podiuma. Ane Santesteban errenteriarra izan zen lehen euskalduna, bederatzigarren.

Aurtengo interesguneetako bat San Juan Momoitiorako igoeran (%17ra arteko maldekin) zegoen, eta antolatzaileek asmatu egin dutela esan daiteke. Zale asko batu zen igoera bertatik bertara jarraitzeko, eta bizitako ikuskizuna ederra izan zen. Helmugan, Johansonek goraiatu egin zuen hainbeste urteren ostean ibilbideari ukitu berri bat eman izana.

# Xakelari gazteen arteko txapelketa, etzi, Elorrion

## > XAKEA J.D.

Elorrioko Txintxirri ikastolak eskolarteko xake txapelketa hartuko du domeka honetan. 10:00etan hasiko dira lehen partidak, eta txapelketa 18:00 inguruan amaituko da. Eskualdeko hainbat taldek parte hartuko dute, Elorrioko Zal-di Baltzak, esaterako. Kimu eta haur-kategoria mailetan, lehendabiziko lau sailkatuek Aldundiak gainontzeko kirolekin batera antolatzen duen Bizkaiko Eskolarteko Jokuetan parte hartuko dute.



# Kulturaleko futbol kanpuserako izen-ematea hasi dute

## > FUTBOLA J.D.

Durangoko Kulturalak 2004-2008 urte artean —biak barne— jaiotako gaztetxoei bideratutako futbol kanpusera antolatuko du udan, eta izen-ematea hasi du.

Kanpusak hiru aste iraungo du: ekainaren 27tik uztailearen 16ra. Erreserbak asteka egin daitezke: astebeteko prezioa 160 eurokoa da; bi asteak 305 eurokoa, eta hiru asteak 450 eurokoa. Bigarren seme-alaba bat apuntatzen duenak %15eko deskontua izango du, eta hirugarren bategatik %25ekoa. Parte-hartzaile bakoitzak ekipazio bi, baloi bat, argazkia, diploma eta aseguruua jasoko ditu.

Ekintza denak Durangoko Arripausuetan egingo dituzte, 09:00etatik 14:00etara. Izen-ematea [www.culturaldurango.org](http://www.culturaldurango.org) webgunearen bidez egin daiteke.

## > AGENDA

### > FUTBOLA

#### BIGARREN B MAILA (gizonak)

**Amorebieta - Fuenlabrada**  
· Zapatuan, 17:00etan, Urritxen.

#### EUSKAL LIGA (emakumeak)

**Elorrio - Gasteizko neskak**  
· Domekan, 16:00etan, Eleizalden.

#### OHOREZKO MAILA

**lurretako - Padura**  
· Zapatuan, 18:00etan, Larrakozelaian.

**Elorrio - Lekeiño**  
· Zapatuan, 16:30ean, Eleizalden

#### MAILA GORENA

**Abadiño - Dinamo San Juan**  
· Zapatuan, 17:00etan, Astolan.

#### LEHEN ERREGIONALA (gizonak)

**Ezkurdi - Astrabuduako**  
· Domekan, 16:30ean, Arripausuetan.

**Amorebieta B - Ermua**  
· Domekan, 16:00etan, Txolonen.

#### LEHEN ERREGIONALA (emakumeak)

**Ezkurdi - Sestaotarra**  
· Zapatuan, 17:00etan, Tabiran.

#### BIGARREN ERREGIONALA

**Zaldia B - Bakio**  
· Zapatuan, 17:00etan, Solobarrian.

**Berriz - Iraultza**  
· Zapatuan, 17:00etan, Berrizburun.

### > ARETO FUTBOLA

#### HIRUGARREN MAILA

**Presion Break - Laskorain**  
· Zapatuan, 16:50etan, Berrizburun.

**Elorrioko Buskantza - Meatzari**  
· Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko udal kiroldegian

#### EUSKAL LIGA

**Sasikoa Durango - Eskoriatza**  
· Zapatuan, 17:30etan, Landakon.

#### MAILA GORENA

**Abadiñoako Gaztetxie - Lagun Onak B**  
· Zapatuan, 17:00etan, Traña-Matienako kiroldegian.

#### EMAKUMEEN LIGA

**Elorrioko - Enkarterri**  
· Zapatuan, 15:45etan, Elorrion.

**Sasikoa - Goiztiri**  
· Zapatuan, 16:00etan, Landakon.

### > SASKIBALOA

#### EUSKADIKO LEHEN MAILA (gizonak)

**Tabirako Baqué - Ibaizabal**  
· Zapatuan, 19:00etan, Landakon

#### EUSKADIKO LEHEN MAILA (emakumeak)

**Tabirako Baqué - La Salle**  
· Domekan, 12:00etan, Landakon.

**Tabirako Baqué - Unamuno**  
· Zapatuan, 19:00etan, Landako kiroldegian

# Tabirako Baqué: hamarreko taldea liga irabazteko hautagai

Hamar partidu segidan irabazita, bigarren taldeak segurtaturik du igoera fasea



Erregional bereziko aurtengo taldea. Tabirako Baqué

**> SASKIBALOIA** J.Derteano  
Tabirako Baqué Bizkaiko Erregional Bereziko liga irabazi zuen iaz, eta aurtengo lortu handi hori errepikatzeko bidean dago. Gizonen bigarren taldeak hamar partidu bata bestearen atzetik irabazi ditu, lider dago, eta igoera fasea jokatzeko sailkapen matematikoa lortua dute hiru partiduren faltan.

David Querok entrenatutako taldeak ia hiru hilabete daramatza partidu denak irabazten. Urtarrilean galdu zuten azkenengoz, Deusto Loiolaren kontra. Harrezkero, batzuetan sufrituz, eta askotan erakustaldiak emanez (111-44 Unamunoren kontra), ez dira garaipenaren trenetik jaitzi. Talde gaztea da —20 urte batez beste— baina

inoren aurrean kokiltzen ez den horietakoa. Querok talde lana azpimarratu du: “Estatistikei begiratu gero, ez dago bat bestearen gainetik gailentzen den inor. Batez beste 10 puntutan dabilen hainbat jokalaririk ditugu, eta hori garrantzitsua da”.

Iaz Bizkaitik Euskadi mailarako saltoa emateko aukera izan zuten lauko finala irabazita,

baina igotzeari uko egin zioten, kanpoko partiduetarako joan-etorri astunengatik, esaterako. Aurtengo kasu berdinaren aurrean baleude, zer? Ina Mendibe presidentearen ustez, “lehen taldearen formazioari begira, interesgarria litzateke mailaz igotzea, jokalariek nahi balute; zenbat eta liga lehiakorragoa izan, hobe guretzat”. Baina balizko egoera horretara heltzeko, bidea egin behar dute oraindik.

## Neskak, bide beretik

Emakumeen talde nagusia bola da txarrean dago, eta azken bost partiduetatik lau galdu ditu. Hala ere, otsailera arteko errendimendu bikainaren ondorioz (14 garaipen eta 2 porrot) lauko finalera sailkatu ahal izateko aurrefasea ia segurtaturik dute. Jesus de Vicente entrenatzaileak ez du uste taldea goitik behar datarrenik: “Maila orekatua da, talde denek izan dituzte gorabeherak, eta orain guri egokitu zaigu”.

Bitartean, harrobiko taldea ere bikain dabil. Tabirako Baqueren neska juniorrek Euskadiko txapelketako lauko finala jokatu dute asteburuan, Bilboko Jesuitetan. Zapatuan, 13:00etan, Loiola Indautxu ahaltsua izango dute aurkari. Finala, domekan, 10:00etan litzateke.

## ADITUAREN TXOKOA

**OIHANA AZKORBEBEITIA**

Mendi lasterketa



## Bat gehi bat ez da beti bi

Bost hilabete beteko dira laster bigarrenez ama izan nintzenetik, eta apurka-apurka hasi naiz berriro mendira joaten eta lasterka egiten. Ia urte eta erdi korrika egin barik egon ostean, gogo handia neukan, txakurrak lagun hartu, eta mendira joateko. Umetxo biren ama naiz orain, eta nire denbora, arreta eta gogo guztia eurengan dut jarria. Nire egoera berri honetan, ez da horren erraza beti norberaren gurariak betetzea. Zer esanik ez lanean hasten naizenean. Laster izango da hori ere.

Bigarrenez ama izatea ez da lehenengoz izatea bezalakoa; niretzat ez, behintzat. Haurdunaldia bera nekezagoa da, erditze ostean motelagoa da leheneratzea, eta, gainera, beste ume bat daukazu etxean, zure arreta osoa eskatzen duena. Fisikoki gorputza ez da lehengoa, eta burua ere ez dago betiko kontuetan. Lehenengo semea eduki ostean, berriro ekin nien lasterketei denbora batera, eta, egia esan, ez zen erraza izan. Bularra ematea lehentasuna izaki, gauetan lo gutxi, entrenatzeko denbora justua, eta, askotan, korrika egiteko gogorik ez.

Bigarren semea eduki ostean ere gogotsu nago lasterketetan parte hartzeko, baina oraingoan, zailagoa izango delakoan nago. Bikoiztu egiten ei da dena bigarren umearekin, baina ez da guztiz egia. Batuketa horrek zenbaki potoloagoa du emaitza. Eskerrak badudan nork lagundu hainbeste maite dudana “afizio” honetan. Eskerrak asko etxeko guztiei. Aurtengo nire lehen erronka Zegama-Aizkorri mendi maratonia amaitzea! Animo!

# Urteetan bila zebilen igoera lortu du Abadiñok

Gazteen taldea Ohorezko Mailara igo da

**> FUTBOLA** J.D.  
Abadiñoko gazte mailako taldeak Ohorezko Mailan jokatu du hurrengo denboraldian. Joan zen asteburuan lortu zuen igoera, liga amaitzeko lau jardunaldiren faltan. Horrela, klubaren historian lehenengoz lortu dute Maila Gorenetik Ohorezko Mailara igotzea.

Azken urteetan bila zebiltzan lorpena da. Iaz, denboraldiko zati handian igoera postuan egon ondoren, azken txanpan

pattalaldia izan zuten. Aurreko urteetan ere igoerako borrokan aritu dira.

Astolan Iturrigorriren kontra batutako puntua nahikoa izan zuten igoera segurtatzeko. Hiruna amaitu zen partidua. Epaileak penalti bi adierazi zituen euren kontra, eta, gainera, hamar jokalarigaz amaitu zuten partidua. Hala ere, egoerari buelta emateko kapaz izan ziren. Iban Jabalerak sartu zituen abadiñarren hiru golak.



Abadiñoko gazteak igoera ospatzen. AbadiñoKE.

# DKT eta Bidezabal dira Bizkaiko talderik onenak

20 urtez azpiko txapelketak irabazi dituzte

**> ATLETISMOA** J.D.  
Bidezabalek emakumeetan eta Durango Kirol Taldeak gizonetan, Bizkaiko 20 urtez azpiko talderik onenak dituzte. Horrela erakutsi zuten, joan zen asteburuan, Durangoko atletismo pistan jokatu zuten txapelketan.

DKTk ia 20 puntuko aldea atara zion Portugaleteri. Taldekako 100 eta 300 metroko lau errelebo probak irabazi zituen. Joseba Ogiza xabalina jaurtiketan (42,05

metro) eta Uxue Barinagarrementeria pisu jaurtiketan (10,68 metro) ere onenak izan ziren.

Bidezabalek lehia estua izan zuten Lekeitiogaz. Lau puntuko aldea izan zen bien artean. Durangoko taldeak 100 metroko lau errelebo lasterketa irabazi zuen, eta Teresa Lujak hesidun 100 metroko proban (15.45 segundo) eta Ainhoa Idoiak 400 metrokoan (1.00.83) bakar-kako garaipenak lortu zituzten.

# Mateok lurretan estreinatu du bere palmaresa Euskadin

**> KORRIKA** J.D.  
Joan zen domekan, Daniel Mateok irabazi zuen Iurretako Hiri Proba, gizonetan (35.07). Bere ibilbidean Euskadin lortzen duen lehenengo txapela da: “Ilusio berezia egiten dit”, adierazi zuen korrikalari soriarrak.

“Beharbada, euskaldunak ohituta zaudete irabazleak txapela jantzita ikustera, baina, berez, oso garaikur berezia da. Gainera, ni herri txiki batekoa naiz, eta nire aititak beti txapela jantzita ikustera ohituta... orain neuk ere badaukat neurea!”.

10 kilometroko lasterketaren podiuma Jesus Espadak eta Hamid Ben Daoud-ek osatu zuten.

Emakumeetan, Kaoular Boulaid-ek iazko garaipena errepikatu zuen. “Maila handiko” korrikalarien artean garaipena errepikatzea “oso pozgarria” dela adierazi zuen.

Iazkoak baino lasterketa mantsoagoak izan ziren, eta ez zituzten hobetu iaz Carlos Alonsok (29.28) eta Boulaid berak (34.09) ezarritako markak.

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016  
EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA  
CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA  
DSS2016.EU



# 2016 bidea

## Durangaldera iritsi da!

Ibilian egiten da kultura



## Apirilak **24** **GERNIKA-LUMO – DURANGO**

*Bizitzaren zirkua*

32 mendi irteera gidatu 100 ekintza kultural baino gehiagorekin.  
Martxoak 27 > Urriak 30

ETAPA 5,  
GERNIKA-LUMO – DURANGO  
Zailtasuna: Altua | Luzera: 25,9 km  
\*Prezioa: 7 €

Donostia eta San Sebastián eta ibilbidearen inguruko berrak.  
\* Gernika-Lumo eta Durango inguruko berrak. 2016bidea.dss2016.eu

 **Eman izena**  
[2016bidea.dss2016.eu](http://2016bidea.dss2016.eu)

*Izena emateko mugatutako eguna: Apirilak 22, 20:00.*

09:00 > 10:00	GERNIKA-LUMO – MENDATA
10:00 > 10:15	MENDATA, Elexalde auzoa. 'Bide majikoa' 1. zirkua ikuskizuna. Zirkoazurre konpainia.
10:15 > 11:15	MENDATA, Elexalde auzoa - Albiz auzoa
11:15 > 11:30	MENDATA, Albiz auzoa. 'Bide majikoa' 2. zirkua ikuskizuna. Zirkoazurre konpainia.
11:30 > 13:30	MENDATA - MUXIKA
13:30 > 14:00	MUXIKA, Mauma auzoa
14:00 > 14:15	MUXIKA, Mauma auzoa. 'Bide majikoa' 3. zirkua ikuskizuna. Zirkoazurre konpainia
14:15 > 15:45	MUXIKA-GARAI
15:45 > 16:00	GARAI. 'Bide majikoa' 4. zirkua ikuskizuna. Zirkoazurre konpainia.
16:00 > 17:30	GARAI-DURANGO
17:30 > 18:15	DURANGO <b>ITXIERA EKINTZA KULTURALA</b> 'Bide majikoa', azken festa. Zirkoazurre konpainia.

**EKINTZA KULTURALAK IREKIAK DIRA HIRITAR OROK GOZA DITZAN**



2016bidea.dss2016.eu | 



## Inmobiliariak

**AMBOTO**  
INMOBILIARIA  
Sanagustinalde, 4 - 1.º ezk. - 48200 DURANGO  
Tel.: 946 813 562

### ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN

- DURANGO: 1, 2 eta 3 logelako etxebizitzak alokagai. 575€-tik aurrera.

### ETXEBIZITZAK SALGAI

#### DURANGO

- TABIRAKALEA: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Etxe osoa kanpora begira. Garaje itxia.
- ERROTARITXUENA: atikoa. 3 logela, 2 komun, sukalde-egongela. 2 terraza handiak. Etxe osoa kanpora begira. 4 kotxerentzako garaje itxia.
- MIKELDI: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, 2 komun eta egongela. Ganbara eta garajea. Berriztatua.
- FRANZISKO IBARRA: 4 logela, 2 komun, sukaldea, despentsa eta egongela balkoiarekin.
- KALEBARRIA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. 120.000€.
- ARTEKALE: 8 etxebizitza eraikitzen. Logela 1 eta 2koak. Trastelekuarekin. 128.000€-tik aurrera.
- ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoa kanpora begira. Berriztatuko. Zonalde onean kokatua.
- ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun eta sukalde amerikarra eta egongela. Garaje itxia eta terraza izugarriak.

#### ATXONDO

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Etxe osoa kanpora begira. 3 balkoi. Garaje itxia.
- 3 logela, 2 komun, sukaldea esekitokiarekin eta egongela. Etxe osoa kanpora begira. Garajea eta trasteleku. Berria ematen du.
- 2 logela, komuna, despentsa, sukaldea esekitokiarekin eta egongela.

#### LEKEITIO

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela terrazarekin. Garajea. Auzune pribatua. Igerilekua eta frontoia.

#### ABADIÑO

- AITA LETONA: 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Trasteleku eta garajea.
- ITURRITXO: Logela bakarreko apartamentua. Sukalde amerikarra-egongela, komuna eta esekitokia. Ganbara, garaje bikoitza eta trasteleku.

#### ZALDIBAR

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztatua. Trasteleku.

### LUR SAILAK SALGAI

#### ABADIÑO

- Bifamiliarra eraikitzeko 1.000 m2-ko lursaila salgai. Zonalde egokia.

#### BERRIZ

- 10.000 m2-ko lursaila. Sarbide ona.

#### IURRETA

- 5 hektareako lursaila. Abeletxe bat egiteko aukera dago.

#### ABADIÑO

- Bifamiliarra eraikitzeko 1.100 m2-ko lursaila salgai. Informazio pertsonalizatua.

#### EUBA

- 3000 m2 eta 3.455 m2-ko lursailak. 2 lurzati, bakoitzean bifamiliarra eraikitzeko aukerarekin.

#### ZORNOTZA

- LARREA: 27.000 m2-ko lursaila.

### BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

- ABADIÑO: Gaztelua. Baserria. Arku zoragarria dauka sarreran. 20.000 m2-ko lursaila baserri ondoan.
- BERRIZ: 1.200 m2-ko lursailean kokatutako txaleta, Abeltxe kalean. 4 logela, 3 komun, sukaldea eta egongela. Garajea.
- ATXONDO: Mariza auzoan. 15.000 m2-ko lursaila. Teilatu berria. Zonalde ikusgarria.

**ISD** Inmobiliaria del Duranguesado  
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666  
www.inmoduranguesado.com  
inmoduranguesado@gmail.com

### ETXEBIZITZAK SALGAI

#### BARRENKALE



- Dotorea. Guztia jarrita. 2 logela, egongela, sukaldea jarrita, komun 1, 2 balkoi eta 8 m2-ko trasteleku. **219.000€.** €

#### PINONDO



- 67 m2. Ikuspegi ezin hobek. Kanpokaldea. 3 logela, egongela, sukaldea jarrita eta komuna. Berogailua. Igogailuarekin. **195.000€.** / Negoziagarria.

#### SASIKO



- 2 logela, egongela, sukaldea jarrita, komuna, balkoi, garajea itxita eta ganbara. **179.000€.**

#### ASKATASUN ETORBIDEA



- 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, komuna, 2 balkoi, eta 8 m2-ko ganbara. Teilatua, fatxada eta ataria berriztuta. **170.000€.** €

#### GOIENKALE



- Dotorea! Logela bat, egongela, sukaldea jarrita, komuna eta balkoi. Guztia jarrita. **139.000€.**

#### SAN FAUSTO



- Berriztatuko. 55m2 erabilgarri. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. **77.500€ /** Negoziagarria.

www.inmoduranguesado.com

**ETXETXO**  
G. INMOBILIARIA  
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO  
www.inmoetxetxo.com

### AUKERA

- KURUTZIAGA. 3 logela, komuna eta balkoi. 130.000€.
- AZKEN ETXEBIZITZA. Estreinatze. 3 logela. 2 komun. Egongela. Sukaldea. Terraza. Trasteleku. Garajea. 159.000€.
- SAN FAUSTO. Zeharmendieta. 3 logela. Komuna. Egongela. Berogailua. Bizitzaren sartzeko prest. 85.000€.
- IZURTZA. 2 logela. Komuna. Egongela. Bizitzaren sartzeko prest. 85.000€.
- IURRETA. Maspe. 2 logela. Komuna. Egongela. Eguzkitsua. Ikuspegi ezin hobek. 111.500€.
- MATIENA. K/ Laubideta. 4 logela. Komuna. Sukaldea. Egongela. Garajea aukeran. AUKERA. MERKEAGO.
- IURRETA. 3 logela handi. Komuna. Egongela eta sukaldea. Igogailua. Berogailua. 125.000€.

### ETXEBIZITZAK SALGAI

- GARAI. 270m2-ko eraikin atxikia. 430.000€.
- F. J. ZUMARRAGA. 4 logela, 2 komun, egongela. Ganbara eta garajea. 236.000€.
- A. EZTEGIZ. 4 logelako Etxebizitza altua, 2 komun eta egongela. Ganbara eta garajea. 240.000€.
- M. TORRE 135m2. 4 logela. 2 komun. Terraza. Trasteleku. Garajea bi toki.
- TXALET. 330m2. AUKERA. 380.000€. Negoziagarria.
- ABASOLO. 84m2. DENA BERRIA. 199.000€.
- ABADIÑO. Iturritxo. 111m2. 2 logela. Sukaldea. Komuna. Egongela. Ganbara eta garajea. 215.000€.
- AMOREBIETA. 70 m2. 2 logela. Komuna. Berriztua. 160.000€.
- ATIKOIA. 35m2ko terrazarekin. 2 logela. Komuna. Egongela. Ganbara eta garajea. Eguzkitsua.
- MIKELDI. Erdi berria. 3 logela. 2 komun. Trasteleku. Garajea. 260.000€.
- ANBOTO. 3 logela. Komuna. Sukalde handia. Egongela. Balkoi. Berogailua. Igogailua. Bizitzaren sartzeko prest.
- S. IGNACIO. 3 logela. 2 komun. Terraza. Trasteleku. Garajea. 230.000€.
- A. EZTEGIZ. 3 logela. Komuna. Sukaldea. Egongela. Igogailua. 155.000€.
- ARKOTZA. 4 logela. 2 logela. Sukaldea. Egongela. Ganbara eta Garajea. 240.000€.
- ASK. ETORBIDEA: 100 m2. 3 logela. 2 komun. Egongela. 2 Terraza. Ganbara eta garajea. Etxe guztia kanpora begira. EGUZKITSUA. AUKERA.
- IBAIZABAL. ERDI BERRIA. 3 logela. 2 komun. Egongela. Sukaldea. Esekutokia. Ganbara eta Garajea.
- ZALDIBAR. Iturrioz. 3 logela. Komuna. Egongela. 2 terraza. Igogailua. Berriztua. Eguzkitsua. 140.000€.
- ZUMALAKARREGI. 65 m2. (Egokia bulegoetarako).
- ABADIÑO. Zelaieta. Erdi berria. 2 logela. Trasteleku. Garajea. 185.000€.
- ATXONDO. Etxabea 100m2-ko lorategiarekin. 2 Logela. Egongela. Ganbara. 210.000€.
- ABADIÑO. Erdi berria. 2 logela. 2 komun. Egongela. Terraza. Trasteleku eta garajea. AUKERA.

### LOKALAK SALGAI ETA ALOKAIUAN

- KOMENTUKALE. 50 m2. Guztia jarrita. 85.000€.
  - IBAIZABAL. 55 m2. Guztia jarrita. Alokairua/ Salmenta.
- ALOKAIURUA EROSTEKO AUKEAREKIN  
**LOKALAK ETA ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN. KONTSULTATU.**  
www.inmoetxetxo.com

**ALOKAIURUAN  
ETA SALGAI DITUZUN  
HIGIEZINEN BERRI  
EMAN NAHI  
AL DUZU?**



**Anbotok tarte hau  
eskaintzen dizu**

Informazio gehiagorako:  
Tel.: 946 217 902  
publi@anboto.org



Apirilak 16  
OTXANDIOKO  
**UDA  
BERRI**  
jaia

17:00 - 20:00 Plazan  
UMEENTZAKO PUZGARRIAK

20:00 - 21:00 Plazan  
ERROMERIA **LHARTZ**

23:30 Plazan  
KONTZERTUA **LARREGI**  
Taldea

00:30 Plazan  
ERROMERIA **LHARTZ**

ANTOLATZAILERAK: Gure Etxea Jatetxea, Huribarrena Jatetxea, Lora,  
Kementsu elkartea, Taberna eta Danoena.

# AGENDA

ANBOTOKo agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



**Apirilaren 16an, 22:30ean,**  
Durangoko Plateruenean

## Izaki Gardenak

Larry Bird taldeak hasiko du Durangoko Platerueneko musika gaua, bihar. Horren ostean, iaz plazaratu zuen 'Aurri gara' diskoa aurkeztuko du Izaki Gardenak taldeak. Hiru kide berrigaz dihardute, urte honen hasieratik, Gizaki Gardenak taldeko Jon Basagurenek eta Libe Garcia de Cortazarrek: Eneko Leza, Eneko Zabalza eta Arkaitz Ezkai batu dira Gasteizko taldera.

### Antzerkia

#### :: ABADIÑO

APIRILAREN 16an

**20:00etan**, 'Brooklyn', Errota kultur etxean.

#### :: BERRIZ

APIRILAREN 16an

**20:00etan**, 'Datorren urtean hobeto', Kultur Etxean.

#### :: DURANGO

APIRILAREN 15ean

**22:00etan**, 'Zapoi', San Agustin kulturgunean.

APIRILAREN 16an

**20:00etan**, 'Zapoi', San Agustin kulturgunean.

APIRILAREN 17an

**12:00etan eta 18:00etan**, 'Txanogorritxo', San Agustinen.

#### :: ELORRIO

APIRILAREN 15ean

**22:00etan**, 'Zergatik Jamil?', Arriolan.

#### :: ZORNOTZA

APIRILAREN 15ean

**21:00etan**, 'El pabellón del olvido', Zornotza Aretuan.



### Erakusketa

#### :: BERRIZ

APIRILAREN 29ra arte

**Eskarne Zabalaren** lanak, Kultur Etxean.

#### :: DURANGO

MAIATZAREN 31ra arte

**'Anbotoko herejeak'**, Arte eta Historia Musean.

#### :: ELORRIO

APIRILAREN 29ra arte

**Paula Quintanillaren** Kubako argazkiak, Iturri kultur etxean.



### Berbaldia

#### :: DURANGO

APIRILAREN 17an

**19:00etan**, 'Herialde Katalanak: kokapen historikoa eta prozesua', Sorginola Gaztetxean.

APIRILAREN 19an

**17:00etan**, 'Mi niño no me come', Iñaki Irastorza pediaren eskutik, Institutuko aretoan.

**18:15ean**, 'El ictus. Síntomas y modo de actuar', Nagusien Egoitzan.

APIRILAREN 20an

**19:00etan**, Berbertan zikloa: 'Migratzaile eta errefuxiatuen drama', Plateruenean.

APIRILAREN 21ean

**19:00etan**, Jaime Azpiunza, Artearen Ezagupidea zikloan: 'Imre Kertész o la lengua exiliada', Arte eta Historia Musean.

#### :: ELORRIO

MAIATZAREN 2an

**18:00etan**, 'Menopausia, aldaketa besarkatzeko aukera' berbaldia, Bizipoza elkartearen. Izen-ematea, apirilaren 26a baino lehen, 'bizipoza.elkartea@gmail.com'-era idatzita.

#### :: IURRETA

APIRILAREN 15ean

**19:00etan**, Gaizka Villar Aldarte elkarte kidea, sexu eta genero aniztasunaz: "Abian jarri aniztasunean". Ibarretxe kultur etxean.

### Musika

#### :: DURANGO

APIRILAREN 16an

**22:30ean**, Izaki Gardenak + Larry Bird, Plateruenean.



### Irakurraldia

#### :: DURANGO

APIRILAREN 22an

**18:00etan**, Hitez eta Ahotsez irakurketa, Plateruenean.



### Dantza

#### :: DURANGO

APIRILAREN 15ean

**19:30ean**, AIKO erromeria, Plateruenean.



### Udaberri jaia

#### :: OTXANDIO

APIRILAREN 16an

**17:00-20:00**, Puzgarriak.

**20:00-21:00**, Luhartz.

**23:30ean**, Larregi.

**00:30ean**, Luhartz.



### Zinema

#### :: BERRIZ

APIRILAREN 15ean (18:00etan) eta 17an (17:00etan)

**Kun Fu Panda 3**, Kultur Etxean.

## APIRILEKO AGENDA



<b>15</b>	<b>BULARRETIK MINTZORA - Iurretako Herri Biblioteka</b> 17:00 Haur hezkuntzako 3, 4 eta 5 urteko gelakoak. 18:00 Lehen Hezkuntzako 1 eta 2. mailak.
<b>18</b>	<b>IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA - Gizarte Ongizatea</b> 18:15 Emakumeen literatur tailerrak.
<b>19</b>	<b>IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA</b> 18:30 Reading club "Animal farm".
<b>20</b>	<b>ODOL EMATEA - Askondo</b> 16:30 - 21:00 Odol ematea.
<b>22</b>	<b>Kzgunea</b> 9:00 "Gmail - Correo electrónico II" ikastaroa Izena ematea: Apirilaren 21rarte <b>LIBURUAREN EGUNA</b> 11:30 "Vademekun" (Debote enbote) Euria bada: Olaburu frontoian. <b>KULTURA SAILA - Ibarretxe Kultur Etxea</b> 17:00 Umeen antzerkia "Arratoitxo pinpirina". Glu Glu. Sarrera dohainik.
<b>24</b>	<b>OROMIÑON SAN MARKO JAIK</b> Iluntzean-eguerdian (zehaztu gabe) Donien Atxa jasotzea eta ondoren, parte-hartzaileentzat makailau errea emango da. Ondoren, igel txapelketa.
<b>25</b>	<b>OROMIÑON SAN MARKO JAIK</b> SAN MARKO EGUNA 12:00 Meza. Jarraian, herri bazkaria. 17:00 Briska txapelketa.
<b>26</b>	<b>ANDEREBIDE IBARRETXE KULTUR ETXEA</b> 18:00 "Clara Campoamor, la mujer olvidada" Videoforum



### :: DURANGO | ZUGAZA

#### El libro de la selva

- barikua 15: 19:30
- zapatua 16: 17:00/19:30
- domeka 17: 16:30/19:00
- astelehena 18: 18:30

#### El libro de la selva 3D

- barikua 15: 22:00
- zapatua 16: 17:00/22:30
- domeka 17: 16:30/21:30
- astelehena 18: 21:00
- martitzena 19: 20:00

#### El secreto de una obsesión

- barikua 15: 19:30/22:00
- zapatua 16: 19:30/22:30
- domeka 17: 19:00/21:30
- astelehena 18: 18:30/21:00
- martitzena 19: 20:00

#### Resucitado

- barikua 15: 22:00
- zapatua 16: 22:30
- domeka 17: 21:30
- astelehena 18: 21:00
- martitzena 19: 20:00

#### Nuestra hermana pequeña

- barikua 15: 19:30
- zapatua 16: 19:30
- domeka 17: 19:00
- astelehena 18: 18:30

#### El inventor de libros

- zapatua 16: 17:00
- domeka 17: 16:30

### :: ELORRIO | ARRIOLA

#### Brooklyn

- zapatua 16: 22:00
- domeka 17: 20:00
- astelehena 18: 20:00

#### ¡Ups! ¿Dónde está Noe?

- domeka 17: 17:00

### :: ZORNOTZA | ZORNOTZA ARETOA

#### Kiki, el amor se hace

- zapatua 16: 22:00
- domeka 17: 20:00
- astelehena 18: 20:15

#### El cazador y la reina del hielo

- zapatua 16: 17:00/19:30
- domeka 17: 17:00

**> BOTIKAK****BARIKUA, 15**  
09:00-09:00**Mugica**  
Andra Maria 9 - Durango**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**ZAPATUA, 16**  
09:00-09:00**Balenciaga**  
Ezkurdi plaza 8 - Durango**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

09:00-13:30

**Campillo**  
Montevideo etorb. 24 - Durango**Mugica**  
Andra Maria 9 - Durango**De Diego**  
Intxaurren 22. - Durango**Navarro**  
Arteka 6 - Durango**Unamunzaga**  
Muruetorre 2C - Durango**Bazan Diaz**  
Uribarri 5 - Durango**Sagastizabal**  
Askatasun etorb. 19 - Durango**Irigoien**  
Bixente Kapanaga 3 - Iurreta**Bartolome**  
Gabiola 2 - Berriz**Eguren, Isabel**  
Trañabarren 15 - Abadiño**Jaio-Olabarrieta**  
Errekakale 6 - Elorrio**Iruarrizaga, Karmele**  
San Miguel 15 - Zornotza**Melero, Rosa Mari**  
San Pedro 31 - Zornotza**DOMEKA, 17**  
09:00-09:00**Campillo**  
Montevideo etorb. 24 - Durango**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**ASTELEHENA, 18**  
09:00-09:00**De Diego**  
Intxaurren 22. - Durango**Iruarrizaga, Karmele**  
San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**MARTITZENA, 19**  
09:00-09:00**Gatzelumendi**  
J.A. Abasolo 2 - Durango**Iruarrizaga, Karmele**  
San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**EGUAZTENA, 20**  
09:00-09:00**Bazan Diaz**  
Uribarri 5 - Durango**Iruarrizaga, Karmele**  
San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**EGUENA, 21**  
09:00-09:00**Irigoien**  
Bixente Kapanaga 3 - Iurreta**Iruarrizaga, Karmele**  
San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

**Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)**> ZORION AGURRAK****> Zorionak Malen** zure 11. urtegunean. Musu pila bat aita, ama, Izaro eta Laiaren partez.**> Zorionak Markel eta Danel.** Oso ondo pasau! Musu handi bat osaba, izeko eta Xabaten partez.**> Apirilaren 14an Intzak** 7 urte bete ditu. Zorionak eta mosu handi bana etxeko guztion partez.**> Naroak** 9 urte bete zituen atzo. Zorionak eta muxu potolo bat amama, osaba, izeko, Lur eta Boliren partez.**> Anerrek** 4 urte egin ditu gaur. Egun ona pasa, amama, aitite eta izeko-osaben partez! Mosu potolo bat!**> Zorionak eta oso ondo pasa dezazula!** Besarkada handi bat zure lagun eta gurasoen partez.**> Apirilaren 7xen Maddik** 5 urte bete zituen eta 13en **Uxuek** 10. Mosuek etxeko danon partez!**> Apirilaren 19an nire osaba Alaine** 36 urte beteko ditu. Zorionak tio! Askok maite zaitut. Naroa.**> Zorionak familixako erregiñandako!** Zaren modukue izeten jarraitu deizule!**> Gure gizontxoak 7 urte bete ditu!** Zorionak, aitatxo eta familiaren partez! Maite zaitut...infinito!**> Zorionak Ali,** primeran pasa zure egune, eta datorren zapatuen zelebrauko dogu danok batera.**> Apirilaren 19an nire aitatxo Alainen** urteguna da. Zorionak aita, pila bat maite zaitut! Amets!**> Zorionak, Daniel!** Aita, amama eta gainontzeko familiaren partez!Ermodo, 11 - DURANGO - Tel.: 946 201 663  
gozatudurango@gmail.com


f Gozatu Gozategia

Zorionak, **Belen Gallastegi!** Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu Iurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.

# anboto.org MUGIKORREAN

**Albistek eta agenda,** bizkor eta eskura.**Telefono gida** osatuena: zuzenean deitzeko aukera.**Parte hartu,** galderak eginez, erantzunak lortuz.**Pertsonalizatu,** zure herria aukeratuz.**DESKARGATU DOAN !**


Albistek, agenda



Telefono gida



Parte hartu



Herriko informazioa jaso

**anboto**  
komunikabideak**Lekuan lekuko informazioa**

Zalaa Ares (1986) eta Ane San Migel (1984) | Roller Derby jokalariek | Durango

# “Estereotipoen kontrako borroka fin bat ere badago roller derbyan”

Roller derbya kontaktuzko eta estrategiazko kirola dela diote Botxo Killers (Bilbo) taldeko bi jokalariek

**> AKUILUA** Aitziber Basauri  
**AEBetatik datorren kirola da roller derbya; European oso zabaldua dago, eta Euskal Herrian ere bada talderik. Botxo Killersen jokatzen dute Zaloak eta Anek, edo 'Argon Scout 14'k eta 'KroketaMemeo84'k.**

**Zelatan roller derbyan? Zalaa Ares:** Beti gustatu zait patinatzea, eta ibili izan naiz neure kabuz. Baina, iaz, jokalaria berrientzako deialdi batean parte hartzera animatu nintzen. Talde-kirola da, eta patinak asko gustatzen zaizkit.

**Ane San Migel:** Danimarkan ezagutu nuen roller derbya. Hala ere, Euskal Herrira bueltatu nintzenean, ez nuen talderik topatu. Hiru hilabetera, *fresh-meat* edo *haragi-fresco* deialdi baten berri izan nuen, eta aurkeztu egin nintzen. Ez nekien ezta patinak lotzen ere.

**Botxo Killersen aurreneko urratsak bizi izan zenituen zuk, Ane.**

**A.S.M.:** Bai. Roller derbyan izerdia botaz jokatzen ikasten hasi ginen. Oso gutxi ginen, eta Euskal Okela izeneko Euskal Selekzioa sortu genuen. Duela bizpahiru urte izan zen hori. Donostiako beste zazpi neskekin batu, eta Frantziara joan ginen, lau partidu jokatzerako.

**Kutsu feminista du?**

**A.S.M.:** Baliteke. Roller derbyan, emakumeak gara gehiengo. Beraz, emakumezkoen erronkak hartzen dira aintzat. Este-

reotipoen kontrako borroka fin bat ere badago: gorputz guztiak dira onargarriak, eta tamainak ez du garrantzirik (barrez). Ezta adinak ere. Beste kirol batean, zaharra nintzateke jokatzeke. Hala ere, AEBetan gizonak ere aritzen dira; Espainian talde bat sortu da. Gurean, bost mutil ditugu.

**Zenbat neska zarete?**

**A.S.M.:** 18 eta 37 urte arteko 25 neska gara. Roller derbya familia bat ere bada, eta behin talde baten arituta, aukera daukazu beste edozein taldetan sartzeko.

**Autogestioan oinarritutakoa da Botxo Killers.**

**A.S.M.:** Bai. Artxandako irris-taketa zelai irekian entrenatzen gara, eta taldea komiteen bitartez koordinatzen dugu. Aipatzekoa da Espainiako patina-je federazioak orain bi hile hartu duela aintzat roller derbya. Aurten, lehenengoz antolatuko da txapelketa, maiatzean.

**Zelan jokatzen da?**

**A.S.M.:** Pista eliptiko batean jokatzen da, eta partida bakoitzak 30 minutuko bi denbora ditu: bakoitzean, gehienez bi minutu iraungo duten 'jam' edo jokaldiak jokatzen dira. Kontrako taldearen blokeatzailerak lehenengo pasatzen dituen jamer liderra izango da, gero jokalariak gelditzeko pribilegioa irabazita. Bere taldearentzat puntuak pilotzea du

helburu jamerrak, eta aurkariari pilotzen ez uztea.

**Estetika berezia da zuena.**

**Z.A.:** Bakoitzaren araberakoa da. Nortasuna azalarazteko era bat. Batzuek tatuajeak dituzte, roller derbyan zein kalean, gus-tatzen zaielako. Besteek ez.

**Orain Ane eta Zalaa zarete. Roller derbyan aldatu egiten da hori? Gudari izena duzue.**

**Z.A.:** Hala da, *Argon Scout 14* da nirea. Baliteke, benetan norbera izateko libreago sentitzea. Bada halako "une basatia", baina ez gara hainbeste aldatzen.

**A.S.M.:** Testuinguru osasuntsua da *KroketaMemeo84* legez bizitakoa. Babestuta sentitzeko lekua da. Autogestioak ere gauza asko irakasten dizkizu. Dena den, janzteko era segurtasunagaz dago lotuta. Roller derbya estetika batez lotu arren, denetarik dugu taldean.

**Gogorra da roller derbya.**

**Z.A.:** Bai. Partidua jokatu ostean, kolpe eta ubeldurez beteta egoten naiz. Baina, jokora zaudene, eta ez duzu minik sentitzen. Hala ere, araudi zabal eta zorrotza du roller derbyak, joko zikinik egon ez dadin. Zazpi arbitro egoten dira. Hirugarren jokoa ere badugu gero.

**A.S.M.:** Kontaktua eta estrategiazkoa ere bada. Segurtasuna oso garrantzitsua da, eta asko zaintzen dira jokabideak.

**Euskal Herrian ezezaguna da.**

**A.S.M.:** Bai, baina, emakumeen kirol guztiak gertatzen den bezala.

**JUANITO GALLASTEGI**  
Abadea



**Beti? Bai gero?**

Asko estimatzen dodan baten zutabea irakurri neban lehengo baten. Polita zutabea. Baina ez neuke hau idatziko zutabe horretan esaera batek harritu ez banindu.

“Eliza beti goikoekin eta bere opilari zirrika”.

Ez dot uste holakorik esan leitekenik aurre-erretxiek bul-tzatuta eta gutxiengo zehaztasuna alboratu gabe izan ezik.

Egia da, ez lerro batzuk bakarrik, liburuak idatzi leitekezala historian zehar hori jazo dala baieztatzeko. Baina beste horrenbeste eta askoz be gehiago idatzi leitekez behekoekin egon dala baieztatzeko. Borondate onez eta aurre-erretxi barik begi zabaltzea baino ez dago.

Beti dago Eleiza edo beste edozein erakunde salatzeke arrazoia, euren kide batzuek edo besteek egiten dabena kontutan izan ezker. Eta baita goratzeko edo ohoratzeke be, beste kide batzuek egiten dabena kontutan hartu ezker.

Bidezkoa eta osasungarria da azterketa, kritika, eretxi emotea, salatzekeoana salatzeta... baina gauzak ondo zehaz-tuta eta bereiztuta.

Ez da bidezkoa orokortzea. Euskaldun batzuek hau edo bestea egin dabela-eta ezin leio ezarri hori Euskal Herriari, ez litzatekelako egia izango.

Edozeini buruz eretxi txarra agirian agertu eta argitaratu baino lehen, behin eta birritan pentsatu behar geunke ea eretxi hori non eta zertan oinarritua dagoan. Eta norberagaz erabil-tzea gura geunken neurria erabili geuk be.

Eta oraindino argiagooa dana honako hau da: “beti” hitza jar-tzeak azterketa eta bereizketa sendoagooa eskatzen dauala, gu-zurra izan ez daiten.

**ALBERDI**  
HARATEGIA

Askatasun etorbidea, 1 DURANGO · Tel.: 946 817 658  
Sabino Arana, 1 ZORNOTZA

**ETXEKO TXORIZO ONENAREN SARIA**

2014-2015  
VILLA DE BILBAO

**ODOLOSTE ONENARI SARIA**

2013 BIZKAIKO ODOLOSTEEN MUNDUKO TXAPELKETAKO IRABAZLEA

2014 ELORRIKO BUZKANTZA JAIKO ODOLOSTE ONENA